

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Maiatzak 12 23. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Burutzen ari San Andres errehabilitatzeko ikerketak



San Andres auzoko bista orokorra

Gure etxeek etengabeko zainketa eskatzen dute egoera onean mantendu nahi baditugu. Hala ere, askotan gure ahalegin guztiak ez dira nahiko izaten etxeak eraiki zirenetik huts nabariak baldin badituzte. Hau dugu Arrasateko San Andres auzoaren kasua, 60. hamarkadan eraikitakoa, momentua zegoen etxe premia larriari erantzuteko. Aurten Arrasateko Udala, Suradesa elkartearekin batera, auzoa errehabilitatzeko ikerketa burutzen ari da. Nahiz Europan horrelako lanak egiten aspaldi hasiak diren, Euskal Herrian Alderdi zaharra ez den auzo bat errehabilitatzeko egingo den lehen lana izango da hau.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Kultur-Etxe berria Bergaran

San Pentekostes jaiak aprobetxatuz, Bergaran Kultur-Etxea zabaldu dute, Errotalde etxe ederrean, hain zuzen.

(10. or.)

“Etorkizuneko Biltegia”

Goi mailako teknologiaz hornituriko biltegi berria egin dute Eroskin.

(11. or.)

ELKARRIZKETA

Xabier Zubizarreta

Datorren ekainean beteko dira bi urte atxabaltar honek alkatetza hartu zuenetik.

(17. or.)

PODIUMA

Pello Iriart


Aurten lau rugby taldeetatik, hiruk igo dute kategoriaz. Honen “errua” dutenen artean, Pello baionarra dugu.

(19. or.)

Antzuolako Txiste

Txapelketa

Martxoan Antzuolako Kultur Etxean txiste txapelketa interesgarria izan zen. Barruko orrialdetan aukeratutako txiste batzuk dituzue.



Arrasate

Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak.

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
----------------------------------------------------------------	--------

19 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Rain Man".
- Haurrentzako antzerkia: Aretxabaletako Herriko Plazan, 6etan, "Sokosorrimorra".
- Kontzertua: Txibiston, 11,30etan "Alaska & Dinarama".
- Musakolako jaiak:



- 10,15etan: kirol-jolasak haurrentzat.
- 16 etan: jubilatuen mus eta briska txapelketen finalak.
- 16,30etan: jubilatuen bolo txapelketaren azkena.
- 19etan: Kiroldegian jubilatuen omenaldi-afaria.
- 22etan: trikitilariak: Mattin eta Imanol.
- 22,30etan: Dantzaldia "Akelarre"rekin.
- 1etan: Sokamuturra ikastolako barrutian.

20 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Rain Man".
- Sanchezki erakusketa eta emanaldia: Zaldibarren, 10etan. Izenemateak, Txanpan.
- Eskolarteko bertso txapelketa: 3, 30etan Amayan.
- Kontzertua: San Juan Parrokian, 10, 30etan, Stugarteko Orkestarekin.
- Dantza ekitaldia: Aretxabaletako Herri Plazan edo koroletxean (eguraldiaren arabera), 7,30 etan. Galdaoko Andra Mari taldearekin.

— Musakolako jaiak (blusen eguna):

- 11etan: Ikastolako barrutian haurrentzako jaialdi herrikoia pottokekin.
- 14,30etan: herri bazkaria kiroldegiko frontoian.
- 16,30etan: San Isidro II. Xake txapelketaren azkena.
- 17, 30etan: soka tirako San Isidro Sari Nagusia.
- 18etan: III. Motokross txikia 49 zm³.
- 22,30etan: Bolo txapelketa.
- 22,30etan: Dantzaldia "Berakatz Band"arekin.
- 1etan: sokamuturra ikastola barrutian.

— Goardiako farmazia:

Irizar, Erguin.

21 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Rain Man".
- Musakolako jaiak:
- 10etan: VI. Isidro Kadete mailako txirritulari-sariketa.
- 11etan: koadrila arteko I. futbito txapelketaren azkena.
- 17,30etan: Herri kirolak.
- 18etan: dantzaldia "Gaurko" taldearekin.

— Euskal jai: Bergaran.

— Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

22 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Rain Man".
- Goardiako farmazia: A.Ruiz, Maalako Errabala.

23 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Rain Man".
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

24 ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Ruiz Torre, Ferrerías.

25 OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

BIDAIA

— Nafarroara: Leitza, Bertizeko Jaureria, Bozate, Amaiur, Zugarramurdi, Urdax... AEKkoekin. Ekainaren 3an. Prezioa: 2.000 pta (autobusa gehi bazkaria). Izenemateko epea: hilaren 17 arte (AEKan, 79 71 12).

IKASTAROAK

— Sofrologia eta lasaikuntza teknikak: Maiatzaren 29tik Ekainaren 2ra, arratsaldeko 6,30etatik 8etara, Ferialeko Herri-Eskolan. Prezioa: 1.500 pta. Jende kopurua: 15 - 20 lagun. Emaila: Milagros Alvarez. Izenematea: Gizarte laguntzaileari (M^{re} Luisa), 3etatik 6etara (79 72 11).

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz deTuesta, Harry Zاراia,
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan
Martin Elexpuru, Mikel Arregi,
Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Mertxe Garai,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Ipuinak ez dira umeentzat bakarrik

Haurrak irakurle asetezinak ohi ditugu. Lehen hizkiak nabaritzeko gai diren unetik beretik euren aisitateetako ordu pilo eskaintzen diote irakurtzeari. Haur literatura, hizkuntza guztietan, babestuenetari-koa izaten da, hain zuzen ere, arrago horretan bihar etziko irakurlegoa aurkitzen baita.

Euskarari, bestalde, beste fenomeno bat ematen ari da azkeneko hamar urteotan. Guraso askok esku artean daukaten gure hizkuntzaz idatziriko lehen liburua, seme alabena da. Eta ume horiek oheratzerakoan, ohi den bezala, "ama (aita) ipuin bat, mesedez" eskatzen dutenean, ama-aita horiek liburu horietako bat hartu eta euskaraz irakurtzen duten lehen aldiz izaten da. Beraz, belaunaldi berria eragiten ari da aurrekoa "jantziagoa" izatera.

Beharbada gurea izango da ahozko tradizioari etena ekarri zion belaunaldia. Gure adinekoen artean ez daukagu ipuin kontalaririk, gure guraso eta -zer esanik ez!- aiton

garaietan ziren bezala. Gazteek erreferentziaz bakarrik ezagutzen duten gerra haren ondorio latzak, euskaldunok hain sustraituta zuten ohitura hura ere ezabatu zuen. Eta gu, aitortu behar dugu, ez kontalari ezta irakurle ere; umezurtz hazi ginen euskal ipuingintzari dagokionez.

Orain, berriz, edozein liburudendatan euskarazkoak ehundaka aurki daitezkeelarik, gure haurrek hartu digute zuzia; herri honek aurrera jarraituko badu inolaz ere itzali behar ez den zuzi argitzailea. Eta oraintxe ere, ez guke aitortenaz lotsatu beharko, orduko umezurtzok begirada ixil bezain izkutuak botatzen dizkiegu liburu horiei; ziur aski, gure barnean hutsunea ezezik baita beharra ere nabaritzen dugulako.

Ipuinen irakurketak, zalantzarik gabe, gure haurrekiko lotura estua goa sorterazten digu, beraien mundu majikoan sartzeko aukera azaltzen zaigu eta. Ez ahantzi, umeek zenbait urtetan zehar -zoriontsuak!- fantasiako mundu hori dutela lagun.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA



Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

ASA ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Eguzkik herriari:

Aspalditik ikusten ari gara gure mendiak eta haranak poliki poliki nola degradatzen ari diren, egun, egoera limite bezala jo daitekeelarik. Horregatik uste dugu konponbide azkarrak eta premiazoak hartu behar direla.

Konponbide hauek ezingo dira inoiz errealak izan Europako Ekonomi Elkartearen barruan egungo lan baldintzetan desagertzea kondentatuak dauden gure baserri eta artzaien egoera sozio-ekonomikoa alde batera uzten badugu.

Euskadiko langileen sektore honi buruzko atentzio-ekak beste baten ere ondorio larriak ekarri zizkigun, adibidez, insignis pinuaren landaketa masiboa edo gure baserrien hustuketa, guzti hau errentabilitate ekonomiko baten bila, horrek ekarri dizkigun arazoekin: desforestazio autoktonoa, uholdeak, desertizazioa, kontrolatu gabeko pisten eraikuntza etab.

Arazo honen konponbidea gure baserri inguruaren ordenazioan dagoela uste dugu, artzantza, laborantza, oihana... guneak argi eta garbi finkatuz.

Guzti hau Euskadiko garapen ekonomiko garbi baten barruan, herriko eta kalitateko merkatu batekin.

Hau dela eta, berriro ere azken

aste honetan, Urbiara pista baten eraikuntzari buruzko zurrumurrua dela eta, polemika gogorra bizi izan dugu. Mota honetako polemikak, gure ingurua aldatu nahi den guztietan sortuko dira, norbanakoen interesen aurka guztion onurarako: baserritarrak, artzaiak, mendizaleak... izango den planifikazioa ematen ez den bitartean.

Guzti honengatik Urbiaren Defentsarako Batzordea sortzea beharrezkoa ikusten dugu, gaur egun jasan behar dituen eraso guztietatik babestea helburu bezala izango duelarik, gure herriaren sektore guztian kontutan hartuz.

Debaldeko Eguzki

AEKko 4. urratseko ikasleak

Azkenaldi honeatan gure gaia lana, langabezia, lantegia eta abar izan dira. Hori dela eta, joan zen astean lantegi bat bisitatzea erabaki genuen. Hain zuzen ere, FAGOREko hozkailu departamentua izan zen, ikusi genuena.

Erakusten ibili zenak benetan ondo bete zuen bere eginkizuna, azalpen guztiak zehatz-mahatz emanaz. Beraz, aldizkari honen bidez, gure esker ona adierazi nahi genioke.

Mila esker Mikel!!

"ALPA!"

Gure ibilaldiaren seigarren hilabeteari ekin behar diogunean, 3.500 ale inprimatu eta zabaltzera heldu gara. Zuri esker, irakurle.

Zure ondoan astero astero jarraitzeko asmoz...


ARRASATE
Press

Zure eritziz Euskal Herriko politikoez euskaraz jakin behar dute?




Rosa Ugarte
(etxeoandrea)

Bai, euskaldunak direlako. Euskaraz egitea denontzat beharrezkoa dela uste dut.




Iñaki Arregi
(langilea)

Bai, euskaraz herriari nortasuna ematen diolako. Katalanek beti katalanez egiten duten moduan, hemengo politikoez jakin beharko lukete euskaraz. Batzuk esaten dute zaila dela, baina hori aitzakia besterik ez da. Hori esatea lotsagarria da.



Joseba Ugalde
(langilea)

Bai, Euskal Herrian euskaraz egin behar dela uste dut, Parlamentuan etab.etan ere bai.



Idoia Arabaolaza
(ikaslea)


Baietz uste dut, Euskal Herrian baldin badaude eta euskaldunen botoa nahi baldin badute, gutxienez euskaraz jakin beharko lukete.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORATZA.n

TEORIKARAKO



PRAKTIKARAKO



I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ERROTULAZIO KONTZEPTU BERRIA



EVSKO-ROT

- FURGONETAK, ERAKUSLEHIOAK ETA FATXADAK ERROTULATU
- BARRU ETA KANPOKALDEAK SEINALEZTATU
- ANAGRAMAK ETA LOGOTIPOAK SORTU

Gipuzkoa Etorbidea z/g (Legarre pabiloi indutrialala) Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

.....
"Urkuluri eskerrak, Deba Garaiko hiru Udalerriek ez dute inolako ur-hornidura arazorik: Arrasate, Aretxabaleta eta Bergara. Oraingoz gainontzeko herrietara ez da urrik heltzen. Eskoriatzako auzotarrei aurten bukatuko bazaizkie ere, orain arteko problemak, Oñati, Elgeta, Soraluze eta batez ere, Antzuolakoek, ezin esan oso pozik daudenik. 1991 arte itxaron beharko dute eta Antzuolak, agian, gehiago itxaron beharko du. Hain zuzen ere, oraindik ere, gaur arte edo antzera jarritu beharko dute eta.

Urkuluk 10 milioi metro kubikoko kapazitatea du. Gaur egunean, 6,5 milioi biltzen du."

(DV egunkarian)

"ETBko anagrama burutzen ari nintzelarik Txorira heldu nintzenean, horretarako zegoen bakarra eta gehien merezi zuena, txantxangorria zela konturatu nintzen. Nire haurtzarotik daukat gogoan. Barazarko edurtza itzeletan gure etxera hurreratzen zirenetan; batzuetan barruan sartzen ziren, leiho ondoan uzten genizkien ogiapurren bila (...)

ETBko Makro-marka gisa iragan duen denbora ondo eman duela iruditzen zait. Gainera, ente publiko baten sinboloa eta, gainera, iraunkorra, izatearren, hain zuzen ere, ezin daiteke uneoro aldatzen ibil."


(Kike Gomez de Segura, Arrasateko JJK publizitate agentziako lankideak Deia egunkarian)

"Osasun Sailordetzak adierazitakoari jarraituz gero, eta ospitale-ereduari aldakorra dela deritzogu, hauxe da unerik egokiena ospitale berria beste leku batean kokatzeko. Sail honetako kideek esandakoaren arabera, inbertsio-maila bat gainditzen denean, ez da birmoldaketa justifikatzen."

(Deba Garaiko Alkateek Ospitale berriaren beharraz Antzuolan egindako batzarrean)

.....

Gipuzkoako Diputazioak erabakirik hartu al du euskararen balorazioa dela eta, Espainiako Gobernuaren inpugnazioak geldierazteko?



Oraingoz ez dugu erabakirik hartu. Hurrengo Kontseiluan aztertuko dugu zer egin eta zein bide aukeratu uholde hori geldierazteko.

Hasieran Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegira jotzea pentsatu nuen, baina bide hori luzeegia izango litzateke, bi edo hiru urte, hara heldu aurretik aurretiaz hemengo kontentziosetara eta Auzitegi Gorena eta Kontstituzionaletara ondoren, jo beharko litzateke eta. Beraz, badirudi ez dagoela zer eginik.

Diputaziotik legez kanpoko biderik ezin dela proposatu garbi utzita gero, akaso udal guztiei egingo diegu dei, eraso hauen aurrean euskararen alde egin dezaten eta amorerik eman ez. Euskara nahiko gutxi baloratuta dagoela iruditzen zait eta orain errekurtsio hauek direla medio gutxiago baloratzen bada, ba, atzerapauso nabarmena izango litzateke. Nire haserrea hortik dator. Izan ere, zer nahi dute, ez dezagun euskara baloratu? Gu ez gaude horretarako prest.

Beste Diputazioekin batera zerbait egitea, bestalde, ez da erraza izango, nola dauden osatuta kontutan hartzen bada. Udal gehienak, ordea, gure planteiamenduekin bat etorriko direla uste dut.

Eraso hauen aurrean geuk hartu behar dugu ekimena, ofentsibara pasatu. Beharbada, geuk hasi beharko dugu erdarari dagokiona inpugnatzen, atzermartxa eurek egin dezaten, ez guk.

Imanol Murua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

**Klase
praktiko
eta
teorikoak**

**Olarte, 30
79 89 89**

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

ETEO

ENPRESA-IKASKETEN UNIBERTSITARI ESKOLA - OÑATI

1989/90 IKASTURTERAKO AURREINSKRIBATZEAK

- * GOI BATXILLERGOA (IEE II): Administrazio eta Gestio-era.
Aurreinskribatzearen epea: Maiatzaren 15etik 30era
- * 2. MAILAKO LANBIDE HEZIKETA (L.H.II): Administrazioa eta Informatika adarrak
Aurreinskribatzearen epea: Maiatzaren 15etik 30era.
- * ENPRESA-ZIENTZIAK:
Aurreinskribatzearen epea: Ekainaren 1etik 30era.

E.T.E.O. - Oñati - Tfnoak: 78 13 11 eta 78 12 51




ARRASATEN
SAN JUAN
BATAIATZAILE
PARROKIAN
MAIATZAK 20
LARUNBATA
8etan

STUTTGARTeko EBERHARD-LUDWIGIGS LIZEOA

T x a n d a k a

Zenbait lanbide berri

Lanbide batzuk zaharkituta geratzea eta beste batzuk agertzea bizilegea da. Traktoreak uztargileari lana kendu zion eta mekanikariari, berriz, eman. Gaur egun bizi dugun teknologi aldaketa bizkorra, zer esanik ez, hainbat iharduera suntsierazten eta beste asko sortzen ari da. Informatika, makina



A. Sagarna*

erreminten zenbakizko kontrola, burotika, robotika, injinerutza genetikoa, material berrien tratamenduak, telekomunikazioak, etab. luzea aipa daiteke gure aroko langintza berrien artean. Gutxiagotan aipatzen diren beste lanbide berri batzuk aipatu nahi nituzke. Quebec-darrei zor diegun "industries de la langue" (hizkuntzaren industriak) kontzeptuaren ingurukoak hain zuzen ere.

Gehienez ere filologoaren eta hizkuntzalarien artergaitzat hartu izan da hizkuntza edota edozein gizakumek berez duen komunikazio-tresnatzat. Industria, aldiz, salgaiak sortzen dituen iharduera-multzo efikazek osatzen dutela uste da.

Esan dezadan hizkuntzaren industriaren loraldiaren atarian gaudela. Zer dela eta? Arrazoi bat baino gehiago dago horretarako:

— Nazioarteko harremanak ugartu izana

— Informazio-trukeak ugartu izana

— Makinekin komunikatzeko ditugun bitarteko baldarrak gaintu beharra (palankak, teklatuak, etab.)

Guzti honek hizkuntzaren tratamendu desberdinak bultzatzen ditu eta hauek gauzatuko dituzte lanbide berriak eta ez hain berriak gaurkotatuz betetzen, hala nola:

Hizkuntzalaritza aplikatuaren

adar guztiak:

— Hizkuntzen irakaskuntza.

— Itzulpena. Horretan Nazioarteko erakundeen indarra gero eta handiagoa da EEEaren zabalkuntzak, esate baterako.

— Terminologi-gintza. Hizkuntza teknikoaren standardizazioa, ezinbesteko bal-

dintza da gaur egun, standardizazio industrialaren testuinguruan. Hiztegi-gintza-prozesua gauzatzeko eta baita hiztegien kontsulta errazteko ere, informatika eta telematika gero eta gehiago erabiltzen direlarik.

Lengoaia naturalaren tratamendurekin lotutako lanbideak:

— Dokumentalistak. Dokumentalisten lana gero eta inportanteagoa izango da eta informatikaren garrantzia gero eta handiagoa.

— Hizkuntzaren analisi automatikaren espezialistak. Hasi tratamendu baten zuzentzaile ortografikoaren diseinutik eta robot bati ohizko hizkuntzan aginduak emateko sistema baten garapeneraino analizatzaile morfologikoak, sintaktikoak, semantikoak eta pragmatikoak behar dira.

— Ahozko hizkuntzaren analisisian eta sintesian diharduten espezialistak. Lengoaia naturalaren formarik naturalena den ahozko mintzaira makinekiko harremanetan erabiltzea ez da dagoeneko ameskeria hutsa.

Harazortzi urte banitu goian aipatu ditudan lanbide horietakoren baterako prestatze saiatuko nintzateke agian. Etorkizunerako bidea bilatzen ari bazara, hautabide berri hauek ere aintzakotzat hartuzazuen proposatuko nizuke.

(* Eluyarko partaidea)

laburrak

■ "Tunantes del Norte" eta A.G.A.

Gobernu-Batzordeak erabaki du antzerki-talde honi, bere obra berria estrenatzeko, 325.000 pta.ko subentzioa ematea. Taldeak, dirua jasotzeko, honako baldintza hau bete behar du: urtea amaitu baino lehenago, obra honen lau emanaldi eskeini behar du; eta Udalaren publizitateaz agertzeko konpromesua hartzen du. Taldeak egindako ensaiatzeko lokal baten eskaerari erantzunez, bestalde, Batzordean San Andreseko areto bat uzteko posibilitatea ikusi zen.

A.G.A.k epe motzera planteatu dituen ekintzetarako (bi antzerki obra, rock jaialdia eta erakusketa) 150.000 pta.ko dirulaguntza ematea erabaki du.

■ Ur, zabor eta estolderi tasa

Udalerrri honetako Zergadun gutxiei jakinerazten zaie 1989ko lehen hiruhilabeteko Ur, Zabor eta Estolderi Tasaren ordainagiriak Maiatzaren 15etik Ekainaren 30era, borondatezko epean ordaindu daitezkeela. Epe hori pasa ondoren ordaindu gabe dauden ordainagiriak %20ko gaitzarekin kobratuko dira.

■ Fagor Fabrelec

Fagor taldeko Batzar Nagusian Fabreleceko akzioez jabetzea berronetsi zen. Fabreleceko kapital sozialak 1.500 milioko gehitzea izango du. Lotura honekin Fagor bere arloan Estatuko liderra bihurtuko da.

Fabreleceko langileei Ulgor taldeko kooperatibistak bihurtzea proposatuko zaie. Operazioak bi problema ekarri dezaizkioke talde kooperatiboari: 50 km.tara dagoen planta bat zuzentzea; eta kooperatibismoaren kontzeptioei eutsiz, Basaurin dabilen 800 langile hauen egoera zehaztea, (Ulgor sozio kooperatibistatzat dute, baina, aldi berean, langile asalaratuak dira).

ANDERE

Bainu eta sukaldeko

ALTZARIAK

*Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromezurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

Memesa

Arrasate

79 42 22



Anaje Narbaiza ekitaldia aurkezten

Kultur Etxe berria Bergaran

“Konde baten esanetara / ekin zioten lanari / hamazortzigarren mendean / jaso zuten harriz harri...”

Harez geroztik gorabehera handiak izan ditu Errotalde etxe ederak. Duela urtebete, José Luis Elkoro gogoratu zuenez, jausten ari zen. Orain, berriz, Murua Balzola Funda-

zioa eta Bergarako Udalaren akordioari esker -hogei urtekoa-, Bergarak behar zuen Kultur Etxearen edertasunak liluratuta utzi zituen bertaratu ziren herritarrak. Herriko eta Udal Elkarteak agintariez gain, Diputazioaren ordezkaritza zabala izan zen, Imanol Murua Diputatu Nagusia buru zelarik.

Aurrerantzean, bergararrok zerbitzu hauek topatuko dituzue Errotaldearen hiru solairu eta ganbaran: ludoteka eta haur liburutegia, pintura-eskola, nagusien liburutegia, erakusgelak, fonoteka, bideo-gela, argazki-gela eta bilera-gela. Sotoan, ostera, Bergarako euskaltzaleen topaleku izan nahi duen Euskal Tokia joango da. Haize berrien ekarle izango ahal da!

Aurten ere, Udaleku irekiak

Iaz bezala, AED elkarteak antolatuta, Uztailaren 6tik 12 urte bitarteko 500 hurrek udalekuez disfrutatzeko aukera izango dute. Udalekuek bi txandetan banatuko dira: bata uztailaren 4etik 13ra (asteburua ezik), eta bestea, 17tik 28ra (larunbata 22, barne). Ordutegia honako hau izango da: 10etatik 1etara, eta 3 etatik 7etara. Antolakuntzan zuzendari batek, hiru kordinatzailek eta hogeitazte hartuko dute parte, eta haurrak 12 laguneko taldetan bilduko dira adinaren arabera. Izenemateak bai Ikasteetxetan bai AEDn bertan egin daitezke Maiatzaren 30 arte, matrikula 2.000 pta. kostatzen delarik. Egitasmo honen helburuak giro atsegin batean euskara erabiltzea, haurrak hezitzea eta esperientzia berriak bizitzea dira.

Hipertentsoentzako ikastaroa

Hilaren 16an, Monterronen hipertentsoei zuzendutako ikastaro praktikoa hasi da. Ihardunaldi hauetan hipertentsoia gizartearen osasunaren arazo bezala tratatuko da; eta bertan, besteak beste, honako gai hauetatik mintzatuko da: elikadura, dietetika, ariketa praktikoa, lasaikuntza eta kontrol arteriala. Ihardunaldiek jarraipena izango dute, parte hartzaileen tentsioa aurrerantzean kontrolatuko bait da. Hau da esperientzia hau Euskadin burutzen den lehendabiziko aldia.

Honako hauek dira, bestalde, hitzaldiak emango dituzten medikuak: Maiatzaren 16an eta 18an, Eukeni Olabarrieta; 23an, Jone Astigarraga; 30ean, Arantza Lizaso; Ekainaren 1ean, M^a Tere Alonso eta 6ean, José Luis Armendia.



Eukeni Olabarrieta



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARAK ETA NEURRIRA.

- DATU-BASEAK**
- OFIMATIKA**
- MANTENU-ZERBITZUA**
- *Ekipamendu eta programak**
- *Telemandua**

**Eroskin
"etorkizuneko
biltegia"
inauguratu**

Astelehenean Elorrion goi mailako teknologiaz hornituriko biltegi berria inauguratu zen. Biltegiak zilo automatikoa du; sistema honen bitartez, eskaera egiten denetik bezeroak jasotzen duenera dagoen una murriztea eta merkatu-eskaeraren arabera ematen diren aldaketetara egokitzea lortzen da.

Biltegian egin den azalera berriak 16.800 m² du (guztira, biltegiak 36.100 m²); biltzeko gaitasunak 15.702 m³ko gehikuntza izan du (guztira, 37.340 m³ du). Zamatokiei dagokienez, 10 atetik 32ra pasatu da. Biltegi berriak 2.000



José M. Fernandez eta G. Orús biltégia berria bisitatzen

milioiko inbertsioa suposatu du, eta, etorkizunera begira, gehiago handitzeko asmoa dago.

Inaugurazioan, Eroskiko buruzgain, Elorrioko alkatea den J.M. Fdez. Arroiabe, Ignacio Ortiz, Jose Barrero eta J. A. Pizarro arkitektoak, Industria eta Merkatal Kontseilari den R. Gonzalez Orús eta Isa Gonzalez sailburuordea izan ziren.

laburrak

■ **Soldadutza eta San Juanak**
San Juan Jaiak direla eta, Alkateztatik soldadutza egiten ari diren arrasatear guztien senideei dei egiten zaie euren helbidea eta izen-abizenak bialtzeko, jaietarako baimen berezia eman diezaieten eskatzeko. Izenak Udaletxeko Idazkaritzan eman beharko dira, Ekainaren 15a baino lehen.

■ **Aiton-amonei omenaldia**
80 urtetik gorako guztientzat datoreen 24ean Udalak herriko aiton-amonei omenaldia eskainiko diela eta, izena emateko epea zabalik dago Udal idazkaritzan Ekainaren 15era arte. N.A.N.a eramatea beharrezkoa da.

■ **Entsaiatzeko lokala**
Rock taldeen eskaera bati erantzunez, San Kristobaleko baserria entsaiatzeko lokal bezala egokituko da.



Olga Espinosak oso hitzaldi interesgarria eskaini zigon

Nikaragua: "gerrarekin emakumeon presentzia areagotu egin da gizartean"


Emakumeen I. Aste Internazionalistaren barruan, Olga M^a Espinosak, Nikaraguako "Asociación de Trabajadores del Campo"ko buruzagiak hitzaldia eman zuen asteazkenean. Bete beterik zegoen areto baten aurrean, Olgak Nikaraguako emakume langileen egoera azaldu zuen. 1982 tik aurrera, lurralde honetan gerra bortitzagoa denez, Iraultzak lortutako garaipen batzuk arriskuan daude. Kontexto honetan emakumearen presentzia politika eta ekonomi arlo guztietan gehitu egin da. Gerra dela eta, lurraldearen ekonomia ia emakumeen eskuetan dago. Topaketa hauen helburua hainbat herritako emakumeen errealitatea Euskal Herrira hurbiltzea eta elkartasuna indartzea da.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Hil honetan plenoa aurreratuko da

Gaurko plenoan Mankomunitateko alkateen gutuna berronetsiko

Corpuseko zubiarekin bat ez etortzeko, hil honetako plenoa aurreratu egin da. Oraingo honetan gai-zerrenda ez da luzea; besteei gainera gai bat nabarmentzen da, eskualdeak duen Ospitale gabezia-

ren egoerari buruz Udal Elkarteak Gobernu-Batzordeak hartutako akordioaren berrespena, hain zuzen.

Karta honen bidez, Deba Garaiko alkateek Sanitateko Sailburua den Freire Jaunarekin bilera bat egiteko eskatzen dute. Gutun honetan eskakizun historikotzat jotzen dute Ospitale berriaren errebindikazioa. Lehendabiziko eskakizuna 1.968an egin zen.

Gasteizen Plan Funtzional delakoan ikusten den birmoldaketa guztiz gutxiegi kotzat jotzen dute. Ez da aurkeztu, bestalde, birmoldaketa eta eraikuntza berriaren kostuen arteko azterketa konparatiborik. Birmoldaketa eginez gero, obrak aurrera eramaten diren bitartean, Ospitalaren funtzionamendua kaotikoa litzateke. Guzti hau dela eta, Gasteizko Deba Garaiko osasun-zerbitzuen beharra seriotasunez aztertu ez duela ikusita, bilera berria egiteko eskatzen dute.

San Juanak prestatzen.

Hilabete dela hasi dira koadrilak hurrengo jaietarako hainbat ekitaldi prestatzen. Ideia ugari bota dira, baina, oraindik detaile asko zehaztu barik gelditu arren, hona hemen burutuko diren batzuk: Rock jaialdia 17an (Tijuana, Tahures eta Potato); poteo popularra patinez edota gonaz jantzita; urunezko "gerra" (iaz honegatik batzuk haserretu egin zirela, koadrilek eskatzen diote jendeari umorez hartzeko ekintza hauek, makala jasotze ohizkoa, baz-



Bileretan gazte asko biltzen ari dira

kari popularra, gaueko prozesioa kandelaz eta koadrilen arteko lasterketa txirringaz. Dena dela, bilera gehiago izango dira, eta idea gehiegok urtego dute, zalantzarik ez.

Musakolako jaiak

Musakolan asteburu honetan San Isidroko jaiak ospatuko dira. Oraingo honetarako programa interesgarria prestatu da (ikus agendan). Aipatu auzokoek jaietarako aukeratu duten sinboloa: astoa (Musakola sinbolizatuz) dragoiari ostikada bat ematen.

Stuttgarteko Orkestra

LKak antolatuta, larunbatean Stuttgarteko Lizeoko Orkestak, Peter Bachoferren zuzendaritzapean, kontzertua eskeiniko du Parrokian. Honako obra hauek joko dituzte: Mozart-en Bibolin eta Orkestarako kontzertua; Poulenc-en Flauta eta Orkestarako Sonata eta Bizet-en 1go Sinfonia. Aukera paregabea musikazaleontzat.

Roneo

"Konbenio zuzenaren alde" lemapean Roneoko langileek borroka-ihardunaldiak burutzen ari dira: ostegun eta ostiralean bi orduko paroak egin dute, eta datorren astelehen eta astearterako 24 orduko greba iragarri dute. Langileen asanbladak ez du onartu ELA eta Zuzendaritzaren artean hartutako akordioa, zeinaren arabera soldatak %7a igoko diren.

Jaiotzak

Alonso Casado *Leire*, Maiatzaren 2an.
Samaniego Arijia *Asier*, Maiatzaren 2an.
Sagredo Uribarren *Mikel*, Maiatzaren 9an.
Mateos Martinez *Alexei*, Maiatzaren 10ean.
Carmona Hernandez *Maddalen*,
Maiatzaren 11ean.
Basauri Morales *Jon*, Maiatzaren 12an.
Etxenagusia Ezkibel *Andoni*,
Maiatzaren 13an.
Rodriguez Fernandez *Jon Ander*,
Maiatzaren 13an.

Ezkontzak

Javier M^a Murguzur Iraeta & Miren Itziar Bolinaga Idarraga, elizan, Maiatzaren 13an.

AITOR



PEUGEOT TALBOT INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Asteazken, Monterronen "Ipuin Tailer" izeneko saioak izan dira. Horrela, astelehenean, Pello Mari Añorga idazlea eta Jokin Mitxelena marrazkigilearen bisita izan dugu. Hauek hainbat ikastetxetako O.H.Oko bigarren zikloko haurren galderari erantzun zizkieten, denak ipuin eta haurrentzako literaturarekin zerikusia zutenak. Bitartean, Pellok marrazki zoragarri batzuk ere egin zituen. Asteazkenean, berriz, Mari Asun Landa izan da.



Besaideko presidentea Garazirako bidea seinatlatzen batzuk gainditu ondoren, Baigorriko aterpean igaro zuten. Eta igandean, Senperera. Plan Totala.

Besaidekoek joan den asteburuan "Herri Urrats" erako irteera antolatu zuten. Bere filosofiarantz eutsiz, aurretik mendiko trabesia egin beharra zegoen. Autobusak bezperatik irten zuten, eta mendigoizale taldeak Orbaizeta — Urkulu — Donibane-Garazi ibilbidea oinez egin zuten. Gaba, mugan eragozpen

Hasi dira, jadanik, tanborrada infantilaren entsaioak. SUDCeko ardurapean, haur batzuk danbor eta barrilei zartako ederrak ematen dizkiote, jo ta ke, frantziskotarren kalostretan. Esan behar da oraindik ere batzuk belarria afinatu beharra dutela baina, trankil, tonua hartuko dute eta



Aurrak ilusioz joaten dira entsaioetara

izen propioak

□ José M^a Urizar, "Ametzu", 48, Apirilaren 26an Mondragoeko EAKo lehendakari aukeratu zuten, karguan José M^a Menika ordezkatu. Urizar zinegotzia izan zen bi urte t'erdiz, Alvaro Arregiren agintaldian. Roneoko Garraio arduraduna da.

□ Jesus Markaide, 39, kontu-azterlari mondragoetarrak utzi egingo du Fragelektro, datorren Ekainean, Zumaiako AYRA-Durex enpresara joateko. Jesusek ESTEn eta Deustuako komertzialean egin zituen ikasketak. Aurretiaz CLPen ihardun zuten lau urtez eta Antzuolako Matzerrekan beste bostez. Kasu hauetan sarri gertatzen den bezala, fitxaketa "head hunter" agentzia baten bidez egin da.

□ Anjel Larrañaga, 45, oraingoan bedofiarra Eusko Alkartasunako Gipuzkoako lehendakari aukeratu dute, Markel Izagirreraren orde. Partiduko Batzorde Eragitea utzi egin du, lan gehiena kargu berria egiteko. Anjelek otsailaren amaieran laga zuten Roneoko gerentzia, bertan 2 urte igaro eta gero.

□ Aitor Aginagalde, 27, HBko zinegotzia Bergarako Udalean. Azken plenoak erabaki zuenez, aurrerantzean eta dedikazio osoz egingo du lan Udaletxean, legealdi honekin iraun bitartean. Dagoeneko Aitorrek bazeraman urtebete liberatu Udaletxean, baina oraingo erabaki honekin bere egoera ofizialki onartu da. Aurretiaz "Manufacturas de Tornillería Estampada" tailerlean zebilen lanean.

□ Alberto Ferreira, 24, eibartarra; Eibarrek lagata igandean jolastuko du bere laugarren partidua Mondra-kin. Aurrelari hau Eibarren hasi zen, hemendik Sansera eman zuten saltoa, berriz Eibarrera itzultzeko.

LARRINGAN
auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

San Andres auzoa errehabilitazioaren zain

Azken urte hauetan, herrietako alderdi zaharrak errehabilitatzeko ahalegin handia burutzen ari da Komunitate Autonomoko herri gehienetan. Arrasatek, aspaldi hartu zuen alderdi zaharra konpontzeko erabakia eta horretarako PERI delakoa jarri zuen martxan. Baina normalean, herrietako alderdi zaharrak izaten badira ere, premia gehien izaten duten hiriguneak, beste auzo ugari aurki genezake birmoldatu beharrean. Hau dugu Arrasateko San Andres auzoaren kasua, esaterako. Aurten Udala, Suradesa elkartearekin batera, San Andres auzoa errehabilitatzeko ikerketa lana burutzen ari da. Nahiz eta Europan oso zaharrak ez diren auzoak birmoldatzeko lanak burutzen aspaldi hasi diren, San Andres auzokoa Euskal Herrian egiten den lehena da, orain arte alderdi zaharrak baino ez bait dira birmoldatu.



Auzoan tamaina desberdineko etxeak aurki daitezke

San Andres auzoaren aukeraketa

Arrasateko San Andres auzoak gutxi gora behera 30 urteko bizia dauka. Berau, 60. hamarkadan suertatu zen garapen ekonomikoaren ondorioz. Arrasatera etorritako jendetza eta suertatu zen etxebizitza premia larriari aurre egiteko eraiki zen. Ondorioz auzoko etxe gehienak azkar eraikitakoak dira, oso kalitate onekoak ez direlarik, mometu hartan etxea izatea bait zen beharrezko eta ez erosotasuna. Etxe hauek, urteen poderioz hondatzen joan dira, eta auzotarrek konpontzeko ahaleginak egin badituzte ere, eskasia nabariak dituzte, igongailua, berokuntza edota isolamendu termikoak esaterako.

Bestalde, auzoan eraikuntza ugartasuna dago, hau da, hamazor-

tzi, hamar eta bost pisotako eraikuntzak aurki daitezke. Eraikuntza bakoitzeko problematika berezia bada ere, mota bereko eraikuntzek antze-

dena. Herri guztietan ikusten da era honetako errehabilitazioen beharra.

Ikerketa eta errehabilitazioa

Auzo bat errehabilitatzerakoan, ezinbestekoa suertatzen da auzoaren ikerketa soziologikoa —auzotarren beharrak zeintzuk diren jakiteko— eta eraikuntzen egoeraren ikerketa burutzea. Hain zuzen ere, bi lan hauek dira San Andres auzoan burutzen ari direnak. Ikerketa soziologikoa Kontxi Malet soziologaren ardurapean dago. Dagoeneko auzoan egin behar zuen lana burutu du, nahiz eta datuak txukundu eta ondorioak atera gabe dituen. Edozein modutan ere, auzoak dituen berezitasun batzuk aurreratu dizkigu. Horrela San Andres auzoak, Arrasatekin gonbaratuz gero, berezitasun nabari batzuk dituela adierazi digu Kontxik. Auzoko populazioa aztertuz gero, hogeitamar urte bitarteko gazte-kopuru urria nabaria da. Bertan bizi den jendea, eraiki zenean auzora etorritakoak, 1930 urtearen inguruan jaiotakoak eta berauen seme-alaba gazteak ditugu, hogeitaretatik beherakoak. Biztanlegoaren ezaugarri honek arazoak sor ditzakeela adierazi digu Kontxik, hogeitabost hogeitamabost urte duen jendea izaten bait da normalean auzoaren karga ekonomikoa bere gain duen jendea, gazteagoengan langabeziak eragin

Auzoan hogeitamar urte bitarteko gazteen kopurua oso urria da. Bertan bizi diren pertsonak 1930 urte inguruan jaiotakoak eta hauen seme alaba gazteak dira.

koak izango dituztela suposa daitezke. San Andres auzoa ikertzean lortutako ondorioak eta aurkitutako konponbideak, beste auzo batzuetan aplikatu daitezkeelarik.

Beraz, auzo honetan egin nahi den lana esperientzia piloto antzeko bat da, gerora gure bailarako beste herri eta auzo batzuetara hedatuko

handia bait du eta zaharrek produzitzaeri uzten diote, auzoa marginalizazio-problema sortzeko arriskua dagoelarik. Bestalde, pertsona nagusi hauei lehen ez zeuzkaten arazo batzuk sortzen zaizkie, igongailuaren beharra, adibidez. Bestalde, Arrasaten goi-mailako ikasketak milako 19ak duen bitartean San Andres auzoan milako 11ak ditu;

momentu honetan ikasten ari den jendea Arrasaten milako 24a den bitartean, San Andres auzoan milako 18a dugu. Biztanleen jatorria azterterakoan, jende nagusiaren artean %40a kanpoan jaiotakoa da. Hogeitabost urtetik beherakoen artean, ostera %3,5a dugu bakarrik kanpoan jaiotakoa. Azken datu hauek ikusirik Kontxik auzoan eman den integrazioa oso handia izan dela adierazi digu.

Etxeen egoeraren azterketa egiterakoan auzoan ematen den etxe dentsitatea izan behar da kontutan. San Andresek 4500 biztanle ditu eta 1300 etxe zortzi hektariatan, dentsitatea 176 etxe/hektariako izanik; legeak gehienez hektariako 75 etxe onartzen ditu, auzoak duen etxe dentsitatea ikaragarria dela garbi ikusten delarik. Honek problema desberdin ugari sor dezake, masifikazioa, etxeetan eguzkirik ez sartzea edo aparkalekularazoa larria izatea. Etxeen egoera auzotarren beharrei aurre egiteko duten kapazitatearen arabera aztertzen da. Azterketa hau burutu gabe dago, nahiz eta Abuztua baino lehen burutzea pentsatu den.

Auzotarren partaidetza

Auzoa birmoldatzeko proiektuak auzotarren artean oso harrera ona izan du. Azkaratek, Sudaresa elkarte

laguntzeko prest egon zitezkeen pertsonekin beste bilera bat eta azkenik zortzi pertsonatako komisioa eratu da. Errehabilitazionalana burutzen ari den taldeak, auzoa birmoldatzeko egingo

konpetitzeko gai, dituzten eskasiak direla medio. Eraberritu ondoren, beren balorea, hein handi batean, igo egingo da. Bestalde, orain arte herritarren joera etxea zahartzen uztea eta ondoren etxe berria erostea



San Andreseko etxeek premia ugari dute

dituen proposamen guztiak komisio honi luzatuko dizkio, beronen eritzia jakiteko eta era honetan proposamen errealak izan daitezzen.

izan da. Beraz, beren proposamenak etxeak gaur egungo behar eta erosotasunei aurre egiteko kapaz bihurtzera zuzenduko dira. Bero-kuntza, igongailua, eta komenigarri ikusiko balitz—gaur egun familiak ez bait dira orain dela hogeitamar urte bezain handiak— etxeen barne egituraren aldaketa ere proposatuko dituzte. Guzti honek inbertsio handia eskatuko die auzotarrei eta bakoitzak erabaki beharko du errehabilitazio planean sartu ala ez. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak ere bere laguntza emango du, itzulerik gabeko subentzioa edota interes baxuko maileguak emanez. Azkaratek adierazi digunez, jendeak etxeak eraberrituko dituela uste da, nahikoa bait da batek etxea konpontzea besteak ere lan horretan has daitezzen.

San Andresek 1.300 etxe ditu zortzi hektariatan banatuak, dentsitatea 176 etxe/hektariakoa da. Legeak gehienez hektariako 75 etxe onartzen ditu

partaideak, laguntzeko oso prest aurkitu dituztela adierazi digu, beraren laguntza ezinbestekoa ikusten dutelarik. Dagoeneko proiektua burutzen ari diren pertsonen artean eta auzotarren artean bilera batzuk egin dira proiektua azaltzeko eta auzotarren artean komisio bat sortzeko. Hasiera batean auzo osoko portalburuekin egin zen bilera bat, ondoren

Errehabilitazioa

Azkaratek adierazi digunez, errehabilitazio proiektua urte amaierarako burutzea pentsatzen dute, bertan azalduko diren proposamenak anbizioak izango direla aurreratuz. Bere ustez, momentu honetan San Andres auzoko etxeak ez dira inolaz ere bigarren eskuko etxeen merkatuan



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

BATZOKIA


jatetxea

**Eguneroko menua
eta karta**

Iturriotz 41, 79 70 41

Arrasate

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobe-
bekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezten.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA


Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen
dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den di-
rua da.



Maite Aristegi eta Jon Iñaki Izarzelai

Antzuolako txiste txapelketa

Joan zen Martxoaren 11an Antzuolako Kultur aretoa bete zen Deba Garaiko Lehen Txiste Txapelketa entzuteko. 400 lagunetik gora barruan eta ia beste hainbeste toki faltagatik alde egin behar izan zutelanak. Hamar kontatzaile: Joxe Ramón Aiausti, Maite Aristegi, Xabier Garitano eta Asier Agirrebeña bergarakoak. José Ramón Peña, Sergio Corominas, Xabier Alzelai eta Ritxard Cuevas antzuolakoak eta Jon Iñaki Izarzelai eta Eugenio Otxoa "Gerra", arrasatekoak. Epaimahikoak, Gillermo Segurola, Xabier Galarraga eta Juan Martín Elexpuru. Aurkezle, Juanito Saizar.

Bakoitzak bosna txiste kontatu zituen eta jendeak errebentau arte egin zuen barre. Epaimahaikoaren erabakia hau izan zen: 1. Asier Agirrebeña, 2. José Ramón Peña, 3. Maite Aristegi, 4. Xabier Garitano. 1. emekumea: Maite Aristegi. Txisterik txarrena: J.R. Aiausti.

Jendea, batenaz beste epaiarekin konforme gelditu bazen ere, asko ziren J.I. Izarzelai sarituen artean egon behar zela ziotenak. Asier Agirrebeña irabazlea izanz en sorpresa. Sekulako patxada, grazia eta baserri euskera aberatsa agertu zituen. Onenaren enbidiarik gabeko kontalaria.

Leku faltagatik sei txiste bakarrik doaz hemen. "Zelebrequerixak" sailean agertu dira eta agertuko beste batzuk.

Urolako trenbidea egin zuten garaikue da hau. Ta juntatu die behintzet e aiuntamentu guztikok, Urretxukok, Azpeitikok eta Azkoitikok eta Zumaikok eta juntatu die, ta erabaki due proiektua, trenbidea hasi Zumaitik eta Urretxuraino trenbidia egin behar duela. Danak bale, danak bale, ta. Atzenengo egunia e:

— Hi guk dana bale, dana bale esan diagu, ta, hor Aizpurutxu al-dian...

Erdi bidian edo goixeaguan base-ri bat harrapatzen omen zun.

— Baserritar hura zer?

— Enteratuta egongo dek. Hau dana publikauta zegok.

— Publikau, hik ze uste dek harek etxetik ertetzen duela, hura eztek enteratu ere egingo.

— Ez? Bueno bueno, nik egingo diat harena.

Jun da tipua, ta:

— Epa, egunon.

— Zezezertara etorri haiz?

— Eztatik enterauta egongo zerran, hemen Zumaitik hasi eta Zumarraino trenbidia, trena pasau behar du...

— Ez, ezer enterauta enitxiok ni. — Ba hementxe, zure etxian erdi erditik pasau egin behar du.

— Nere etxian erdi erditik?

— Bai.

— Ezkerreko alde hontatik pasauta ez al da igual?

— Ez, ahal dala, bestela ere nahikua mendi txarrak daude, ahal dana zuzen jun behar du, eta zure etxian erdi erditik pasatzia tokatzen da.

— Hemen eskuiko alde hontatik ez al da igual?

— Ez, len esan detena, zure etxian erdi erditik pasau egin behar du horrek.

— Askotan pasa egin behar al du.

— Ba, behin jartzen degunian, orduero orduero.

— La ostia hi, putada edarra egin behar diak hik, orduero atia itxi eta atia iriki, atia itxi eta atia iriki.

Gillermo Segurola. (Epaimahaikoa. Azpeitia)

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

txisteak

Badakituzue Arrasateko jai ezaguna Maritxu Kajoi daukagula eta bertako kuadrillatako bat, berantarrri bat, danerako beti berandu, ta trajia prepartzeko beti berandu, ta hau ta bestia ta, korbata falta ta zapatak falta ta beti hola. Bezpera etorri zan da: "Kabuen dio, aurten be ni traje barik".

Joskiñagana joan da.

— Zu e, bixarko trajia gureko neuke ba nik.

— Jode bixarko? berandutxo etzabiltz?

— Bai, berandutxo nabil baina...

— Ez ez ez, nik ezin dotsut trajeik eñi.

Beste bategana joan da ta iguala. Azkenengo intentua.

— Zu zer, bixarko trajia?

— Bai, bai gizona.

Ai ba dio. Bera be moska, baiña.

— Etorri etorri barrura.

Neurrixak hartu dittu goi tta be, hau ta beste, ta:

— Bixar e hamarrak inguruan etorri.

Bera be oso konbentzittuta ez, baiña bueno. Hurrengo goizian etorri da ta sartu barrura, ta.

— Da, trajia eñi dok?

— Bai, sartu lasai barrura.

Sartu dok eta...

— Ea, probaik.

— Hi, hemene, fraka barrenien e, zera, luze-txo jaukat.

— Hori, hori samur arregletan dok. Hori hola ipiñi bai eta hori ondo daukek, e.

— Bai, bai, bai, elegante jaukat hi.

Gero mangie be luze samarra ez ete

daukaten hola...

— Hori hola ipiñi tta ondo daukak.

Beittu, beittu, beittu, ondo gaiñera e.

— Ba hori hola bajau apur bat. Kategorixan baiña e.

— Hau beste eskumakua jaukat e luze xamarra.

— A, hori e hola ipiñi ta kategorixan hi. Ze pentsetan dok?

Pagau ta irten da kalera, ta badoia kalien (ibilera zelebrea) da bi gizon atzetik begira, ta:

— Hi, ikusten dok hori? Zein gorputz aldrebesa daukan eta zein traje egokixa ein dutsien...

Jon Iñaki Izarzelai (Arrasate)

Bi gazte elkartzen dira kalean, aspaldian ikusteke, ta esaten dio batak besteari:

— Zer, Joxe, nun sartu haiz ba?

— Ni? Houston-en

— Houston-en zetan egon haiz ba?

— Medikiak sekulakuak dittuk han.

— Ze eñi doste ba?

— Arrautzak kendu jostek.

— Eta oiñ zela moldatzen haiz.

— Len baiño hobeto. Oiñ filetia eta arraiña jaten juat.

Xabier Alzelai (Antzuola)



Ritxar Cuevas

Sekulako atalak harrapatzen zittuan Bernardok, eta etxera joaten

zanian, zelebrenkerixan bat egin bihar, bai, tta gaiñera ohitura bat, oiñetakuak kentzeko ahalik eta zarata gehixen etara bihar. Hartu zapatia ero botia eta dinbi danbateko baten kontrako paretara bota bihar. Bada-

kizu ba, kapritxua euki eta hoixe. Eta aldamenekuak lo ba justo, hantxe paretian kontran. Desesperauta gizonoi. Berandu ordun baten joan, esnatu eta gero ezin lorik hartu. Egunen baten ezin aguantau gehixao eta esan jao:

— Bueno hi mozkortu hari nahi bok, baiña neri lo eitten lagaidak behintzet e. Gutxienez oiñetakuak kurioso kendu ta laga.

— Bueno bueno, hori baiño ezpaldin bok egingo juau hainbeste, mutil.

Hurrengo egunian beste sekulako atxur bat harrapau dau eta han doia ordun batzutan. Jarri da ohe gaiñian, hartu botia, dinbi danba, kontrako paretara. Orduantxe akordau. "Ostras, esan jostan ba neri. Hau kurioso laga bihako juat". Kendu isil isilik, laga han eta sartu da ohera.

Hurrengo goizian ataxan bestia-kin juntau.

— Ze, zer Lete, gaur behintzat ondo lo egingo eban ba.

— Lo? Ixilik egon hari mutil, sekula baiño gutxiago egin juat eta.



Asier Agirrebeña, irabazlea

Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basktomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previassa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate

— Ze, baiña?

— Ze esaten dok? lenengo zaratiakin esnatu nitzuan da gero gau guztia buruai helduta bigarrena noiz etorriko ete zan...

Maite Aristegi (Bergara)

Beste baten obran han zebizen, Bernardo eta beste antzuolar bat, ez naiz akordatzen zein zan. Hor ibilliko da nunbaiten tuerto samartuta. Han zebizen zulon bat eitten dinbi danba, pikatxoiakin, di-da-di-da. Halako baten joaten jako pikatxoioi eta bestian begi guztian, danba. Zartaria baiña mortala. Hor doiaz, pikatxoi oinddio begixan dabela medikuagana. Aillegau die urgentziatara, Mondraera. Kuria ein dotse zela hala, holakotxe partxe batzuk ipifitta hor bialtzen dau kanpora.

Bestioi bastante konforme, hori baiño ezpada izen, da, horraittio kanpora urten zanian, "mekasuenla" galdetu bihako jotsat pa nik. Sartu da berriz be medikuagana ta.

— Zu, zu, barkatu, baiña nik e begixa gero galdu eingot?

— A, zuk jakingo zu, nik poltsikuan sartu dotsut eta.

Maite Aristegi (Bergara)

Behin e bi plaza baten badare ta. Batak e:

— Hirezat zer dek bixkorraue

trumoie hala argindarra?

— Nirezat e, trumoie, tximistie, dak! eta trumoie derrepente.

Da bestiak e:

— Neretzat argindarra. Llabiai da eman da taka argia.

— Ez, trumoia lenao.

— Ez, argindarra.

Halako baten hiru-garrena han zatok, taka, taka, taka.

— Hi, aizak, etorriai honea. Hirezat zer dek azkarrao, trumoia hala

argindarra?

— Neretzat e kakaberakue.


— Kakaberakue, zela ba?

— Ni tximistia baiño bizkorrago

joaten nauk komunera, da argia eman baiño lenao kaka ein diat fraketara.

Xabier Garitano (Bergara)

Behin tipo batek urtetzen jok frabrikatik, txekia kobrauta, sobrian begiratzen jok eta ze, ta berrogei mila pezeta. Ille osua kriston lan pillia eif da berrogei milla pezetakin etxera. Etxerako bidian joiarren da hortaiko



Jose Ramon Peña



Xabier Alzelay

kartel bat: BINGO. "Nik entzunda jaukat jentiaik hemen diru asko irabazten dabela, ikustera najoiak aber, pruebia egin". Tipuoi sartzen dok eta:

— Kartoe bat.

Juten dok barrura ta, hasten dok numeruak esaten bestioi, ta illaria betetzen jok, eta zortzixa falta.

— Mekauen diez, zortzi hau...

Eta beste mahai batetik:

— Bingo!

— Mekauen, oin jodidu jostek edarki hi.

Juten da berriro mahira ta.

— Emuidak hiru kartoe.

Berriro hasten dok eitten da berriro zortzixa falta. Beste mahai batetik:

— Bingo!

Gero serie osua... eta zortzixa falta, gero berrogei kartoe ero eta zortzixa falta... eta azkenian diru barik. Andria kristona jaukan, potola bat, eta.

— Bueno nik oif andriai ze esango jotxat ba. Eingo dotena dok gaur butakan lo egin eta bihar goizian zeoze asmauko jauu.

Butakan lo jaok eta hurrengo goizian andria jaikitzen

dok goizao, ta, tipua lo dagola:

— Joxe, zortzirak!

— Bingo, bingo!!!

Ritxard Cuevas (Antzuola)

STIHL

**HONDA
MOTO-KIROL**

Gipuzkoako Etorbidea 7, Tfnoa: 79 11 78 ARRASATE



**PUB
HAIZEA**



**APARTAMENTU,
ETHEBIZITZA
ETA
BUNGALOWEN**

**SALMENTA
ETA
ALOKAIRUA.**

**TORREVIEJA
ETA
VILLASOLLOSA**

Informazioa:
Enrique Mendieta
Kontzesifno kalea 6, etxabea



UDALEKU IREKIAK

Arrasateko 6tik 12 urte bitarteko haurrentzat. (biak barne)

2 txanda

1.— Uztailaren 4etik 13ra

2.— Uztailaren 17tik 28ra (Larunbata barne)

ORDUTEGIA

GOIZEZ: 10'00 etatik-13 etara

ARRATSALDEZ: 3 etatik 7 etara

INSKRIPZIOAK:

NON:— Haurra ikasten ari den ikastetxean.

— AED Elkartean Pablo Uranga, 4 behea. Tfnoa: 79 54 46

NOIZ:— Maiatzaren 30 erarte.

PREZIOA: 2.000 pta.

OHARRA: Txanda bakoitzean gehienez 200 haurrek parte ahal izango dute; beraz izena emate lehentasuna kontutan hartuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero AEDn. 79 54 46 telefonoan.

Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz
Antolatzaile: AED Elkarte

Xabier Zubizarreta: "Arrasatek duen beharrik handiena azpiegitura da"

Xabier Zubizarreta dugu gaur egungo Arrasateko alkatea. Ekainean bi urte beteko ditu karguan eta aurtengo Urtarriletik aurrera, dedikazio osoz ari da Udaletxean lanean. Gaurko honetan berarekin egon nahi izan dugu herriari buruzko zenbait gaiz eta arazoz bere ikuspuntua jakiteko asmoz.

— Arrasate Press: Aurten dedikazio eskusiboz hasi zara Udaletxean lanean, horrek zer suposatuko du Arrasate herriarentzat?

— Xabier: Dedikazioak suposatzen duen abantailarik handiena Udaleko gaitan zentratu egiten naizela da. Lehen bi atentzio puntu nituen, lantegia eta Udala, orain aldiz, nire lanordu guztiak Udaletxean ematen ditut. Abantailarik handiena hori da, Udalean zentratu egiten naizela eta bertako langileekin kontaktu zuzena izan dezakedala. Nik uste Arrasate bezalako herri batek, 1.700 milioiko aurrekontua duen Udal batek, behar duela korporaziotik dedikazio eskusiboz lanean ari den pertsona bat izatea eta denborarekin gero eta jende gehiagok egon behar duela Udaletxean dedikazio eskusiboarekin.

— Zein da zure eritziz Arrasateko herriak duen beharrik handiena?

— Beno, ikuspegi desberdinetatik gauza desberdinak izan daitezke beharrik handiena. Oro har, eta azkenengo aurrekontuetan horrela isladatzen da, Arrasatek duen beharrik handiena azpiegitura da. Azpiegitura generalean hartuta.

Gauzak aztertzen hasiz gero, azpiegitura guztia birmoldaketa edo erakuntz fasean sartuta dagoela konturatzen gara.

Frontoi berria egitea erabaki dugu, Ospitale zaharraren birmoldaketa egiteke dago, kiroldegi berria Iturripen, kiroldegi zaharraren birmoldaketa beharra. Oro har, Arrasateko herriak duen hutsune handi bat hori da, azpiegiturarena, ezaugarri

berezia duelako, beste herri askok ez bezala, ezin dela inguruetak azpiegituraz baliatu, alegia. Hiriburuak urruti dauzka, eta esaterako teatro bat ikusi nahi baldin badugu, edo bidaia luzea egiten dugu edo Arrasatera ekartzen dugu teatro hori. Ingu-ruek guk daukagun adina dute edo gutxiago. Nolabait bakarrik bizi garela esan daiteke eta horrek zaildu egiten du azpiegitura onez hornitu ahal izatea.


— Dena dela, azkenengo urtean herria erabat aldatzen ari dela dirudi...

— Beno kontutan izan behar da aurreko bospasei urteetan Arrasaten geldiuene nabaria egon dela, bai erakuntzan bai industrian. Industriak gainbehera nabaria izan du. Momentu honetan berrindartzea nabari da, industri arloan eta ekonomi alorrean, oro har. Arrasaten, nahi denagatik, etxerik ere ez da egin azkenengo urteetan eta orain hiru lekutan egingo dira etxeak, industria goraka doa, gasa ere etorri zaigu. Bideetako azpiegitura ere hobetzen ari dira: saihesbidea, Durangotik Beasainera joango den errepideak ere positiboki oso afektatuko gaitu, herria garraio astunetik liberatuko bait du. Eta bai, herria nolabait aldatzen ari da.

— Lehenago ere aipatu duzu Ospitaleak birmoldaketa behar duela, eta azken aste hauetan zer esan ugari sortzen ari den gaia da

hau. Zer dela eta ikusten duzue Ospitale berri baten beharra? Horren garrantzizkoa al da herriarentzat?

— Beno, Arrasateko Ospitalea hor izan dugu, baina erreferentzi bezala osasun inguruan mugitzen



Xabier Zubizarreta

diren erakunde internazionalak eskaintzen dituzten parametroak hartuko bagenitu, Deba Garaiko Ospitaleak ez ditu inondik inora parametro horiek betetzen. Orain arteko zerbitzuak ez dira heltzen inondik ere parametro horietara, ez dauzkan m²tan, ez dituen zerbitzuetan, ez eskaintzen dituen atentzio konkretuetan. Gaiso ugari automatikoki beste Ospitale batzuetara joaten da, urrutiagokora, hemen ez dagoelako baldintza egokirik eta nolabait ospitale honek konfidantza ematen ez diolako.

Erakunde internazional horiek ematen dituzten parametroak kontutan izanik, oso argi daukagu orain kokatuta dagoen lekuan desegokia dela, ez dagoela lekurik horrelako azpiegitura bat kokatzeko, kontutan izanik azpiegitura hori oso epe luzerako dela.

Bestalde, momentu hau historikoa dela uste dugu, ezinbestekoa, Deba Garairako behin betiko Ospitalea lortzeko, bestela Euskal Herrian Eskualde-Ospitalerik gabe geratuko den eskualde bakarrenetarikoa izan behar dugu.

Osakidetzatik jasotzen dugun erantzun ezezkoagatik benetan hase-re gaude, eta pasa den astean bertan, gutun bat bidali genien, gutun nahiko gogorra. Gure erreibindikazioak zeintzuk diren azaltzen dizkiegu, erreibindikazio oso zehatza, Ospitale berri baten aldekoa.

"Deba Garaiko Ospitaleak ez ditu inondik inora osasun erakundeek jartzen dituzten parametroak betetzen"



Aurten 282 atletek hartu dute parte

Garin azkarrena VII. "Arrasate-Oñati"koan

Joan den igandean, eta eguraldi zoragarri bateaz, bete zen Arrasate eta Oñatiren arteko probaren VII. edizioa. 11,3km.ko proba honetan 282 atletek hartu zuten parte, denek antolatzaileek jarritako ordu t'erdiko epearen barruan helmuga zeharkatu zutelarik.

Azkarrena Juan Mari Garín izan genuen, 35.10 ko denboraz; bigarren Hernández Galán (35.30); eta hiru-

garren, Ramón Jausoro atxabaltarra (35.32). Honako arrasatear hauek sartu ziren aurreko postuetan: 8. Enrike Kabiketa (37.12); 11. Xabier Mentxaka (38.06); 20. J.R. Belaus-tegi (39.11), eta 32. Pedro J. Belin-chón (40.44). Juniorretan lehena Mikel Diaz de Gereñu atxabaltarra izan zen, 27.a, 40.35ko denboraz. Arrasate Presseko kolaboratzaileen artean ere, oso hedatua dago atletismo zale-tasuna; horra hor J. Martin Elexpuru-ren 111.eko postua (47.08) eta Mikel Irizarren 141.ekoa (49.42).

Asier Guenetxea 3. Bergaran
Joan den igandean Bergaran bigarren mailako afizionatuentzat LIV. "Pentekostes Saria" izan zen. 117 ziklista sarreran eta 110 km. egin beharrekoak. Proba sprint bateaz erabaki zen: 1. X. Usabiaga (Cegasa); 2. W. Nijboer (Caja Rural); 3. Asier Guenetxea (Fagor-Lagun Aro). Mendiko saria Arroiberatzat (Fagor) izan zen eta Taldeka Fagor-Lagun Aro taldeak irabazi zuen.

Skate-board
Txanpa jantzidendak, AUKEA-REN laguntzaz, antolatuta, datorren larunbatean Zaldibarreko frontoian, eta goizeko 10etatik aurrera, sanchesky edo "Skate-board" erakusketak eta txapelketa izango da. Erakusketan Euskadiko onenak izango dira eta lehiaketan partu hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Txanpa dendan (Iturriotz, 23).

X. Haurren Ibilaldi Neurtua
Aretxabaletako Murrukixo taldeak antolatuta, igandean, 9etan X. Haurrentzako Ibilaldi Neurtua Aretxabaletatik irtengo da. Ibilbidea: Aretxabaleta-Murrukixo-Oro-Larrino-Azatza-Arientza-Almen-Aretx.

SOKOA



Zeharkale estalia

Arrasate

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABALETA



Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

1989 SAN JUANETAKO ESKAINZA BEREZIA EGUZKITARA

*** BENIDORM**

- Ekainaren 24etik Uztailaren 2ra
- Britainia Hotela, pentsio osoa
- Autobusa (irteera Arrasatetik)
- Haurrek doan (2-10 urte): 24.850 pta

*** SALOU**

- Ekainaren 24etik Uztailaren 2ra
- Europa Park Hotela, pentsio osoa
- Autobusa (irteerak Arrasatetik)
- Haurrek doan (2-10 urte): 23.200 pta

*** MALLORCA**

- Ekainaren 25etik Uztailaren 2ra.
- Haurrentzako beherapen bereziak
- Abioia eta trasladoak barne
- Irteera Gasteiztik: 31.050 pta.

*** IBIZA**

- Ekainaren 25etik Uztailaren 3ra
- Hotela -pentsio osoa-
- Abioia -irteera Gasteiztik- 34.675
- Apartamentua 4Pax. 24.325

*** CANARIAS**

- Ekainaren 25etik Uztailaren 3ra.
- Hotela -pentsio osoa- 47.450
- Apartamentua 4 Pax. 24.325

VIAJES

EROSKI
BIDAIAK


Maestro Arrano 8
Arrasate. Tfnoa] 79 99 22

podiuma

Pello Iriart, rugbyko entrenatzailea

Pello 9 urterekin hasi zen rugbya praktikatzen Baionan. Iparraldean rugbya kirol nagusia dugu. Lehen Dibisioan jokatzera heldu zen, Avyronekin; baina, 21 urte zituelarik, menisko letsio bategatik, utzi egin behar izan zion rugbyari. Azkenean karrera bukatuko ez bazuen ere, kultura fisikoa ikasketak egin zituen, atletismoa, rugbya eta izotz gaineko hockeya espezialitateak aukeratu. Squash jokalaritza trebea da, lau urtez ia egunero praktikatu izan bait du kirol hau. Ikusten denez, Pello kiroleko kontuetan gizon aditua dugu.

Entrenatzaile bezala, hau da bere bigarren urtea; iaz Eibarreko taldeaz arduratu zen. Aurtengo denboraldia bikaina izan da Arrasateko Rugby taldearentzat. Lau ekipotik, hiruk lortu dute kategoriaz igotzea, kadeteak, gazte mailakoak eta seniorrak, hain zuzen. Senior taldeari dagokionez, Euskal Ligako 2. mailara igo da. Taldea 1.972an sortu zen, 1.984ean desagertu, 1.987an berriro berbildu zelarik. Pellok horrela ikusi du denboraldia: "errezena egin dugu, baina eragozpen handiekin. Herriari izan ezik, ez dugu izan kontrariorik. Santamasetatik Otsailera izandako atsedendialdiak, bestalde, kalte handia egin digu; gainera, lau jokalaritza soldautzara joan zaizkigu eta beste batzuk txandaka hasi dira lanean. Guzti hau dela eta, otsailetik aurrera ezin izan dugu egin entrenamendu bat ere plantila osoaz. Bukaera baino hobeto ibili gara hasieran".



"Zaila da rugbykoa baino ekipoa afizionatuagoa aurkitzea"

Aurtengo emaitzak ikusita, taldean zer asmo dagoen jakin nahi izan dugu, "lau ekipuak mantendu nahi ditugu, baina enfokea goitik beherakoa izango da: batez ere, seniorra potentziatuz. Arazoak izango ditugu gazte mailako taldearekin. Horregatik, 16-18 urteko jokalaritza eskuratzeko kanpaina egiteko asmoa dugu".

Pellok, emaitzaz gain, lortutako giroa azpimaratu nahi du, "denboraldi hasieran promesa bat egin nuen: jokalaritza guztiek hartuko zutela parte, eta bete egin dut. Rugbyan zaletasuna nagusia da, zaila da ekipoa bat rugbykoa baino afizionatuagoa aurkitzea".

Orain San Juanak arte jarraituko dute "lagun arteko" partiduak jokatzen. Hurrengo denboraldia, Pelloren hitzetan, "askoz gehiago borrokatu beharko da. Jokoa maila handikoa izango da, eta gertatu egin behar". Eta amaitzeko Pellok eskerak eman nahi dizkie taldearen inguruan ibili diren guztiei: "Kako, Arana, Jimenez, Txanton, Agapo, eta, bereziki "Arrasate Kirolak" eko Uribesalgo anaiei".

Ainhoa Gandariasen omenez
Orain dela hiru aste bere familiarekin istripuan hil zen Ainhoa Gandariasen omenez, datorren larunbatean, arratsaldeko 6etan Kiroldegian, saski-baloiko partidua jokatuko da. Honako talde hauek hartuko dute parte: I.B.A. (Arrasate), San Inazio Eskola (Bilbo) eta San Frantzisko Xabier Ikastola.

KIROLAGENDA

- **futbola: larunbatean, Setan:** Pedrusco - Alaves; *igandean*, 11,30etan, Santurtzi - Mondra; *igandean*, 11,30etan, Arrasate - Molarri (gazte mailako 2.a).
- **saskibaloia: larunbatean, 6etan** Kiroldegian, Ainhoa Gandariasen omenez: I.B.A., San Inazio Eskola (Bilbo) eta S. Frantzisko Xabier Ikastola.
- **gimnasia erritmikoa: larunbatean, 12etan** "Gimka Gazela"k antolatuta, erakusketak Kiroldegian
- **pilota: larunbatean, 4,30etan** Bergaran: Retegi III-Gorostiza — Goñi-Berna.
- **besaideko irteera: Maiatzaren 25ean, goizeko 7etan:** Larraitz - S.Migel Aralar. Prezioa: 700 pta. (18 urtetik beherakoek, 350). Apuntatzeko epea: hilaren 23 arte (Besaiden, Monte eta Iratin).
- **musakolako jaiak:** hainbat kirol ekitaldiak (ikus 3. orriko agendana).

Denborapasen soluzioak Aritgrama

"Abenduko eguna, argitu orduko iluna"

Hiztegia lantzen
Oldartu: Eraso



EGIDO Ordezko Piezak
Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua

eta

karta


Musakola Auzoa. 79 82 31

Dorretxea: Jatorriz militarra

Ezbairik gabe, dorretxea euskal arkitekturan bereziki nabarmentzen den eraikuntza du. XII-XIV mendeak bitarte hedatu zen, hasera batetan militar xedez, baina gerora botere adierazgarri ere bilakatu zelarik. Ildo honetan arabako dorretxeak gainontzekoengandik bereizi behar ditugu.

Arabako dorretxeen jatorria baskoien eta bisigodo eta mairuen arteko gatazketan bilatu behar da. Bizileku fortifikatua da, beraz, eten-gabeko kanpo erasoengandik gordetzeko babeslekua.

Gipuzkoa edo Bizkaiko dorretxeak, ostera, eta Oñatiko Zumelzegitarrena edota Aretxabaletako Otalorrena berauen adierazgarri ditu-




gularik, ez da sortzen babez premiaz. Sozialki, imitazio fenomeno bat besterik ez da, mailaketa prozesu baten estalki. Arabar jauntxoek, Bizkaia nahiz Gipuzkoako lurren jabe egitean,

berauren gizarte maila altua nolabait adierazteko lehenengo harrizko etxeak eraikiko dituzte.

Bestalde, esan behar Arabako dorretxeetako nagusiak, jauntxoak alegia, lider hautatuak zirela, beren kemen, jakinduria edota indarrarengatik nabarmentzen zirenak. Baina gure kasuan hau ez zen horrela. Haundikia izan nahi zuenak beste balore batzuk azaldu behar zituen, ekonomikoak, eskuarki. Hala, errota zein ola bat atxekirik

zeraman leku egokian eraikitako harrizko dorretxea, maila adierazgarri garrantzitsua zen, honela inoiz ez izandakoaren irudia emanez.

M. Arregi



AHIZKE-CIM Coop. E.

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa

ITZULPENAK
INTERPRETARIAK

Bisitak
Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin

**KABINETE
MEDIKOA**

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analisak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO
ZENTRUAK**

INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

Costello erregearen azken oparia



Elvis Costello: "Spike (the beloved entertainer)". Warner Bros WEA.

Ez da guztion ahotan dabilen kantaria, baina musikazale eta kritikarientzat "pop"aren erregea litzateke Elvis Costello. 1954ean Londonen eta Ceclan McManus izenaz jaio

zen pailazo, azti eta adarjoleak hamabi urteko lan bikainari ale berria erantsi dio "Spike" izeneko azken diskarekin. Eta berriro ere bete-betean asmatu duela esan behar.

Hamabigarrena duen diska honetan, aurrekoetan emandakoa guztiz borobiltzen du Elvis Costello. Ia ordubete irauten duten 14 (bai, hamalau) kantu aparteko eskaintzen ditu, Chrissie Hynde (Pretenders), Paul McCartney, Tom Waitsen musika-lagunak eta Cait O'Riordan (Pogues) bezalako jendez inguratutik. Ohi bezala, musika freskoa, bizia, lehen aldiz entzutean atsegina eta entzun ahala mamituz doana. Lehen entzunaldia zirriborroa eta hurrengoak koadroa osatuz doazen zertzeladak bailiran.

Eritzi superlatiboak jaso dituen diska, bestalde. Adibidez, Rock de Lux aldizkariak bere azken alean hauxe dio:


"... maisulana da, aurten oraingoz egin den diskarik onena, Lou Reedek marraztu berri dituen New Yorkeko pasarteekin batera. Hondakinik gabeko hamalau kanturen bilduma haundia. Ez dago ezer alferrik edo sobran dagoenik..."

"Devórame", Diario Vascoren musika-gehigarriak, bere aldetik, Costellori eskaintako erreportaia zabal baten barnean honelako espresioak erabiltzen ditu diska honi buruz:

"... Album honek apenas lehiakiderik izango duen 89an, onegia baita da (...) Hamarkadako pop onenaren ratio galanta (...) Kantu sorta honetan argi disdiratsuz agertzen da Elvis Costelloren jeniotasuna, susmaezina, atipikoa, aparta beti".

Superlatibo asko, agian gehiegi. Barka, baina neu ere Costello-zale amorratua nauzu. Mea culpa

Mikel Irizar



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera



MONTE
TABERNA

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera

Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOK IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8

Errezeta:



Inoiz bildotsik jatekotan, orain-
txe gaude sasoirik onenean, eta bil-
dots eder bat zelan gertaketan den
ondo jakiteko Ignazio Zuloagan
dagoen "Alkartu" elkartera inguratu
gara. Bertan Felix Uribetxebarria
Abarrategirekin berba egin dugu
euren errezeta berezia ezagutzeko.

"Alkartu" elkartearen 70 bat sozio
dira, eta hauen artean taldetxoren
batek ohitura moduan ei dauka bate-
ron baten urtebetetzea denean diru
bat botatzea. Horrela, noizean behin,
diru pilatxoa egindakoan, aukera

ederra izaten dute afariak
gertaketako. Halakoetan, batez ere
okela jaten ei dute. Okelen artean,
bildotsa eta saiheskia laban erreta.
Bestelakoetan, lebatza izaten da
aukeratua.

Bildotsa prepartetako aurreko
egunean hasten dira prestakuntza
lanak.

Ardo txuria hartzen da, litro bat
inguru, berakatz buru bat eta kopa bi
pattar. Berakatz txiki txiki egiten
da (baina ez almitzean) eta ardoare-
kin nahasten da. Ondoren pattarra
gehitzen da eta nahastea hurrengo
egunerarte uzten. Horrela zapora eta
usain bereziak hartzen ditu.

Bildotsa prestatzen hasten gare-
nean, zatitu eta gatza botatzen zaio
gainetik labean sartu baino lehena-
go. Bandeja batean ipintzen dira
pusketak, baina komeni da bandeja
hau beteta geratzea, bestela bildotsa

larregi erretzen ei da eta.

Labea bero edukiko dugu bildo-
tsa sartzen dugunerako.

Sartu labean eta su motelean
egin ordu t'erdi batean. Aldika,
begiratu eta aurrez prestatutako
mejunkea gainetik bota. Bildotsak
berak ere saltsa sortzen du, eta hau
ere gainetik botatzen zaio.

Mahaira atera behar denean, tan-
takatxo batzuk mejunke botatzen
zaizkio osterara, bildotsaren zapora
bizitzeko.

Halako beharlekuak hartuta gero
sukaldariak bi gauza eskatuko
dizkie jatera datozenei: jateko
gogoia eta puntualitatea. Puntu
puntuan ateratzen ez bada bildotsa,
sikatu egiten da eta.

Mahaiaren letxua-entsaladarekin
zerbitzen da.

Morokil Taldea

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABAETA

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

**ERAIKUNTZAK
ETA
BERRIZTAPENAK**

BENGOA

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
belrina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ARRASATE PRESS

Bidaliezazkiguzu
zure kolaborazioak

Forma fisiko ona (III)

Gutxi dira forma fisiko ona duten pertsonak, osasun-maila onerizgarria badute ere. Forma fisiko txarra dutenak maizago aurkitzen dira gure artean. Baina zein da guzti honen arrazoia? Arrazoi ezberdinak aurkitzen ditugu forma eskas honen zergati bezala:

Lehenengoa: GELDITASUNA. Hauxe dugu kausarik garrantzitsuenak; esan genezake gure mundu moderno honetan dena teknifikaturik, automatizaturik eta aurrerapen guztiekin dugula lana errazagotzeko eta gutxitzeko; horrela, gure aktibitatea ere gutxitu egiten dugu. Aktibitatearik gabe, gorputzeko ehunak atrofiatu egiten dira gaitasun fisikoa gutxitzen delarik.

Bigarren: ESTRESA. Gizarte kompetitibo honetan guttiz zabaldua daude estresa eta urduritasuna; horrela, gurputzaren eta buruaren

errekurtsoak gastatu egiten dira, beste aktibitate eraginkor batentzat beharrezkoa den energia xurgatzen delarik.

Hirugarrena: JAN-EDATEAREN GEHIEGIKERIA. Energiaren gehiegizko kontsumora eramaten gaitu, batez ere, egindako aktibitatearen erlazioatzen badugu. Kaloriak, beharrezkoak direnak baino askoz gehiago irensten dira, gastatzen direnak baino gehiago eta hauek ez dira lurrunduz galtzen, gantz bezala gure soinean gordetzen ditugu.

Laugarrena: SISTEMA BEHARTZEA. Neurria hartzea beharrezkoa da; forma fisikoaren aldetik, adibidez, aktibitatearen gehiegikeriak gaitasun fisiko eta mentala urritu egiten ditu, posible dena baino gehiago egiten denean.

Norbera neurriak hartu beharrean

aurkitzen da, gehiago egiten saiatzea txarra izan daitekeelako: lehendabizi gorputza prestatzea derri-gorrezkoa da.

Bostgarrena: OHITURA AUTOSUNTZITZAILEAK. Benetan ohitura txarrak asko ditugu: gehiegi jatea eta edatea, axolik gabeko bizimodua, elakidura desorekatua, loari ordu gutxi ematea, eta gorputza gutxi zaintzea. Guzti honek forma fisiko txarra dakar eta gainera osasuna alferrik galeraz dezake.

Pertsona batzuek forma fisiko ona lortzeko, gabetasunez eta sakrifizioz beteriko bizimodua derri-gorrezko ikusten dute, ia ia Erdi Aroko aszetak bizi ziren bezalatsu bizi beharko litzatekeelakoan. Baina gauzak ez dira horrela, posible da ondo pasatzea eta dibertitzea, gauza gutxi baztertuz eta forma fisiko ezin hobeia izanez.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*




**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI



**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

***NABE INDUSTRIALEN
SALMENTA***

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

ETXEBIZITZAK

- Garajea salgai Erdialdean. Tfnoa: 79 19 23
- 60m²ko merkataritzarako lokala salgai. Tfnoa: 79 74 80
- Arrasaten Mertzzeria bat esku aldatzen da. Prezio interesgarria. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 79 65 78-79 79 16.
- Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- Guztiz hornitua dagoen ileapaindegia errentan eman nahi da. Interesatuek dei 79 95 86 telefonora
- Arrasaten pisua errentan hartuko genuke. Interesatuek deitu 79 54 31 telefonora (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Aldai-gainen pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 gela, eta garajea. Berokuntza zentrala. Interesatuek dei 79 71 93 telefonora.
- Pisua konpartitzeko neska bat behar dugu. Tfnoa: 79 69 82 (gauetan)
- Pisu txiki bat errentan hartuko nuke. Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79 97 34 tfnora.
- Torrevejan Bungalows-a salgai dago. Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gaueko 9.30etatik aurrera deitu, 79 15 74 telefonora.
- Laredo: Apartamentua salgai. Interesatuek dei 79 52 80 telefonora
- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algortan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna.

Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.

- Pisua salgai erdialdean. Interesatuek dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobeto. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79.70.29. Iñaki.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Interesatuek dei 79 47 85 telefonora.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79.52.89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.

LANA

- Bergarako Udalak igeltzeroa kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- Bergarako Udalak Administrari laguntzailea kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- Bergarako Udalak Deliniantea kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan
- Eraikuntza irakaslea behar dugu. Interesatuek dei 79 79 38 tfnora.
- Alecoop-ek Kalitate Zuzendaria eta Merkatal Teknikaria kontratatu behar ditu. Interesatuek, datu pertsonalak eta

curriculum profesionala 20.500 Arrasateko 81 postakutxara, Pertsonal-Departamentuari zuzenduta premia bidez bidaltzea eskatzen dugu.

- Emakumea behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuek dei 79 51 50 tfnora, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.
- Edozein lan egiteko pres nago. Kontabilitatea eta mekanografia menperatzen ditut. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera 79 52 96 Tfnoa. Karmen
- Informatikako irakaslea behar dugu Paskal programaren klase partikularrak emateko. Interesatuek dei 79 99 82 telefonora. (Miren). Urgentea da.
- Neska euskaldun batek etxeko lanak egin eta umeak zaindulo lituzke. 79 76 81. Lorea.

SALEROSKETAK

- Motoreta bat eta karrerazko bizikleta bat salgai. Tfnoa: 79 52 96. Andoni
- YAMAHA XJ 650 c.c BI-8727-AD KRAUSER maletakin salgai. Dei gaueko 10etatik aurrera 79 80 88 telefonora. Santi.
- Land Rover 109 largo normal saltzen dut. SS-4456-T. Ia berria. Interesatuek dei 79 37 14 telefonora. Aitor.
- Bigarren eskuko paseo-bizikleta erosi nahi dut. Interesatuek dei 79.67.35 telefonora 9etatik 5,30etara
- "Minerva" balantza elektronikoa bat salgai. Interesatuek dei 79 11 60 Tfnoa.
- Ford Escort 1.6 Ghia lau urte terdikoa oso egoera onean salgai. Tfnoa: 79 68 67



ARRASATEN HILDAKOAK

- Vitoriano Aracón Iglesias, 62 urte
Maiatzaren 5ean
- Rosario Sagardui Ureta, 53 urte
Maiatzaren 7an
- Mariano Balanzategi Ezkarra, 85 urte
Maiatzaren 11an
- Juana Basterrika Larrañaga, 72 urte
Maiatzaren 12an
- Vitoria García San Martín, 86 urte
Maiatzaren 14an
- Asunción Rubio Delgado, 93 urte
Maiatzaren 15ean


ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

Zeharkale estaila 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Maximo Letona (II): "Sasoi baten aixkoran dotore eitten naixuan"



Bi txapeldun alkarren onduen: Maximo Letona eta...Joxean Tolosa

Pelota partidui inportantiena?

"Interpueblos"-etan eta "Cuenca del Deva"-n eta dexente ibilli izen nok, jeneralien ni baño hobak egon izen dittuk bañe... Inportantiena Arrasatek "Interpueblos"-etan txapeldun urten auen urtien izango zuan. Gero tokau jakuan Naparrueko txapeldunen kontra jokaketie. Errazkin ero uste juat izengo zala; Galartzak jokaketan juaubenilletan. Eta pasau zuan Tomas Zubillagak zerbait euki auela ta ezin auela jokatu. Eta ni lar seguru be ez nitzuan sentiduten eta Loitik eta esan justien ba Etxaniz Bergaarra be iguel eruingo auela. Eruen juen Etxaniz eta ni etxien trankill. Bañe Garitaonandia bixkaitarra jauan partidue ikusten ta harek ezautu Etxaniz, ta ha etzala Mundraukue ta ezin auela jokatu. Orduen deittu justien etxera ta Morrasede hartu kotxien ta eruen nindduan etxafleruen pare ta jokatu ta irebazi. Ordukotxie jaukat akordui onena.

Aixkoran be bai...

Bai, sasoi baten aixkoran dotore eitten naixuan. Behin Santagedako

"Hau esatekue be eztoz bañe..."

"Interdistritos" batzutan jarri nindduen manoinmano Bordagarai, getarixar baten kontra. Tanto bakar bat be ezin ein ta partidue aurrera oiela, esaten nutzan, "hi, itxidek pa, besteik ezpada bat eitten". Ezta bat bera be; 22-0 itxi nindduan. Gero berak urten jua kanpeoi" Maximo

jai batzutan jokatu gaixuan Santi Unamunok eta bere lehengusu batek eta Joxe Migel Unamunok eta neuk. Bestiek ez hainbeste bañe Santik inderra jaukan ta ebai be egogi ta irebazi ein juzkuen. Ta urrengo urtien jokatu gutzan Saratxo esaten eutzien batek eta bixok Artabilla ta Juan Mari Unamunoi ta ha irebazi ein gaixuan.

Eta baitte bertsotan be...

Nik aittepuntekue naukan artista akaberabakue ta hor 16 urte inguru naukela Maringo jaxetan eta kantau eraitten justan. Ta beste mutil zahar kuadrilla bat be bajauan ta hareik be eitten juen. Ni ona ez nitzuan bañe hareik baño hobie bai. Ta orduen Eskoitzan jarri juen txapelketie ta lagunek eta juen ein biher nauela. Orduen onentxuenak jazan... Iparagirre eta Gregorio Etxeberria, "Toloxa". Ta niri tokau jatan Lasturreakin ta bestieie entzun ta gero ni ninguan burue be galdute. Zeozer kantau naixuan bañe... gauza haundik ez. Ta gero, ba afaixetan-ta kirtenkeixan batzuk bota ta apur bat ikasi ein juat, ta oin ba trabes edo kurtzez ba moldau eitten jittuat.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Behin abadiak deittu zotsan dotriñan zebilen ume baten gurasuai eta esan zotsan:

— Hi, Paulo, hire semiai berbetarako edukaziño puxkat erakutsi biha dotsak, ze "hika" tratatzen najok eta. Badakik hori ez tala itxuria bestien aurrerako be.

— Lelo madarikatua. Horrenbeste jakin biha leuke ba. Hika tratau abade jauna? Ederki izan be. Enfin, lotsagabe xamarra be bada ta. Baiña neuk erakutsiko dotsat hari gizonak eta batez be abadiak zela tratau biha dien. Txorimalua halakua.

Etxera joan zan Paulo eta esaten dotsa semiai:

— Hi, baiña hik ez takik abade jaunai "berori" deittu biha jakona, ala?

— Izena aldatu dotse ala?

— Ze izena aldatu eta ze otxokuarto. Izena aldatu dotselako ez, abadie holaxe deittu biha jakuelako.


Ondorian mila esplikaziño emon zotsan berorika zela egitten zan entendidu zeixen.

Hurrengo egunian joan zan mutikua dotriñara eta soltau zotsan abadi "berorikada" batzuk. Abadia asko poztu zan gurasuak bere esana aintzakotzat hartu zebelako, mutikuan edukaziñua poliki poliki leunduaz joango zalakuan. Hala ta be bere artian pentsatzen zeban "zuka" egingo balotsa be nahikua izango zala eta zera preguntau zotsan mutikuai modu onian:

— Nork esan dosk "berorika" egin behar jatala?

— Aittak esan jostak hiri "berori" esateko.

Juan Martin Elexpuru



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Gerraneko jauretzea

Mondragoe zaharra inguratzen zuen harresian bertan kokaturik zegoen Gerraneko jauretze hau;

San Frantzisko elizaren aurrean eta Olarte kalearen hasieran.

Donostian jaio arren, hemen bizi izan zen ia beti Juan Karlos Gerra (1860-1941) heraldista ezaguna. Gizon jakintsu hau bere garaiko euskaltzalerik ospetsuenarikoa izan genuen, Euskal Herriko armari, genealogia eta leinu zaharrei buruzko ikerketetan nabarmendu zelarik. Lan horietaz gain, azpimarkagarria da gure hizkuntzaren eta literaturaren historiarako, aintzinako eskuizkribu, kronika eta liburutan arakatuz, euskarazko kanta zaharrez osatu zuen bilduma garrantzitsua. Juan Karlos Gerra Arrasaten hil zen 1941eko Urriaren 2an. Gerra Enea, berriz, 70eko hamarkadan lurreratu zuten, etxebizitzak eta banku bat egiteko.

Gerardo Elortza

—Fotozahar sariketa—

Ze urtetan lurreratu zuten Gerra Enea jauretzea?

—Joan den asteko irabazlea—

Mirian Leibar ("Juanita zuen izena Portaloian gasolina banatzen aritzen zen emakumeak")

Egundoko **WALK-MANA**
-VIGURI Bideo Klubak emana-
irabazi nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran 14'ko koloretako
markako TELEBISTA BAT
zozkatuko du hileko parte
hartzaile guztien artean


Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobetxa zaitez gure esperientziarekin:

- * LODITASUNA eta ZELULITISA
- * ILE-ERORKETA eta ILE-ARAZOAK
- * TXIMURDURAK zlrugiarekin eta gabe.
- * TABAKOARI UZTEKO

Kontsulta: (ARRASATEn): SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945/25.62.00 eta 25.63.33 (Gasteiz)



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

44 Galeria



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otolora Iean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

TALLERES AGA, S.A

**Zerreilgintza aratzeko
gaiak**

Legarre pabiloi industrialak.
Tfnoa: 79 02 22 ARRASATE

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalen gaixotasunak

Azaleko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa— Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otolora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.

Tfnoa: 79 34 33

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....


Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

denon artean egiteko
bidali zuen
kolaborazioak

Iñaki Aldekoarekin hizketan

Ia hilabete dela, Iñaki Aldekoa idazle gazte oñatiarrak "Ignazio Aldekoa" euskal ipuinentzako saria eskuratu zuen, Antton Riviere Haramendi ezizenpean aurkeztutako Begirada galduen nostalgia ipuinarekin. Hogeitabost urte, musikalaria trebea, Euskal Filologiako ikasketak burutu zituen Donostia eta Gasteizen, orain Donostiako Irakasle Eskolan dabilelarik.



— **Hauxe da literaturaren munduan egiten duan lehen ahalegina?**

— Beti ibili izan nauk literaturaren mundutik oso gertu. Baina orain artean argitaratu ditudan gauzak kritikaren alorrean sar zitzakeagu; zakena, Atxagaren Obabakoak liburuak sortutako zenbait erreflexio, literatur Gazetan.

— **Izenburuagatik, ipuin irabazleak erromantikoa zirudik. Hala da?**

— Zentzu batean, pentsa zitekek erromantikoa dela, baina askoz ere urrinago doala uste diat, sakontze eta aberaste prozesu baten bidez: narratzaile aniztasuna, amets giroa, metaliteratura (Kafka izan daitekeen pertsonaia Praga izan daitekeen hirian galduta), jazzaren submundua...

— **Galdera tipiko-topikoen ordua. Euskal Literatura?**

— Zailtasun handiena hizkuntza literario baten erakuntza egon duk.

Garai luze batean, idazle gehienek antzeratsu idazten ziaten, idazkera apur bat enkortsetatuaz. Baina bagoazak piskanaka muga horietatik, batez ere herri euskararen uztartzearen bidez.

— **Literatur sariak?**

— Ondo zeudek idazle berrientzat, lehenengo lotsak gainditzeko tranpolin moduan. Badakik, hasieran zerbait idazten duanean, epaile neutro baten beharrea hago, lagunarte maila hori gainditzeko. Baina arriskutsua duk programa bihurtetan direnean, sariak irabazteko errezeta asmatu eta horretan jarraitu, jo eta ke.

Gero, kultura ezaren zuriketa den ala ez, horretan ez nauk sartzen. Seguruasko baduk halako zeozer. Egia dena duk askotan maten duela simulakroan, montaje horietan jende gehiago mugitzen dela literatura egiten eta irakurtzen baino.

— **Kritikak?**

— Normalean, kritika eta literaturaren maila bateratsu ibiltzen dituk. Kritika serioaz ari nauk, jakina, ez periodikoetan ibiltzen diren hika-mika horietaz.

Ez diat gehiegi sinisten Modernitateak sortu zuen sistematizazio montaje guztia, kritikaren zientzi itzala, sakralizazioa; ironia eta distantziamendua behar dituk kritika ona egiteko.

Roland Barthes, Octavio Paz, Andre Gluksman, Hans Magnus Enzersberger eta abarren obrak komentatzen bukatu genuen elkarrizketa, lasterbere idazlumaren fruitua gure orrialdean ikusiko dugulakoan.

G. M.

KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 73 88



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

■ **Amatiño eta Arrasateko Udal Euskaltegikoak:** Pozik bai pozik irten zuten Euskaltegiko bi taldekoek "Laino guztien azpitik..." saioa ikustera. Itzulera, ostera, ilun samarra izan omen zen. Zer dela eta? Heldu baino ez eta Amatiñok berak, hotz hotzean, "bueno, nahiz eta ikusten duzuen gustatu ez, zuek txalotu, eta gogotik gainera", esan ei zien. Ondoren, Juanito Zelaia ofatiarrak ikasle haiek zertara etorri ziren itaundu zionean, eibartarrak "horiek?, txalo egitera" erantzun omen, merkantzia gehiegi estimatzen ez duenaren eran eta mondra-goetarrek entzuteko gisan. Gauzak esateko moduak eta moduak daudela zioten gure arrasatear zapuztuek.

■ **Txirindularitzari buruzko zenbait tabu:** Amaitu berri den Espainiako Vueltan zehar argi gelditu da beste behin, aspaldiko tabuek, hau da, edozein arrazoiengatik agerian aipa eta ukiezinak diren gaiek, sendo dirautela. Hona hemen hiru adibide.

Bat. Raymond Dietzen karrerista alemaniarrek jausi eta ia burua apurtu zuen Jakarako bidean. Oso larri egon da eta oraindik ez dakigu nola irtengo duen. Inori ez diot entzun edo irakurri, bizikletari profesionalen buruak altzairuzkoak ez direnez, haiek guk bezala edo arrazoi handiagoz -askotan 90km. orduko abiaduratan ibiltzen bait dira-, kaskoak behar dituztela eta ez koskorroi babes soilak.

Bi. Vueltaren azkenaurreko etapa ikusgarrian, Navacerradakoan hain zuzen, mundu guztiak goraiatzuten zuten Delgadoren aliantzak egiteko abilezia. Inork ez zuen aipatu Delgadok egun horretan Ivanov, Santos Hernandez, Unzaga eta Suykerbuyk-engandik jaso zituen laguntzak dirutan ordaintzen direla. Gure eguneroko iharduera ontzat ematen duguna, lana dirutan ordaintzea, alegia, ez zaigu ziklismoan aipatzerik gustatzen. Harrigarriena zera da, txirindulariek eurek indartu egiten dutela tabua, sinesgarritasun eskaseko aitopenen eginez, "etapa irabazi nahi nuen, eta horregatik".

Hiru. Marinok, gure Marinok, Vuelta, Giroa eta Tourra korrituko ditu -Burgosko itzulia irabazi ahal izateko, erantsiko luke Andoni Egañak, baina ez noa horretara. Norbaitek ondo ezagutzen bazuen txirindularitza Anquetil handia zen eta hark esandakoa datorkit burura: "Ez dago Tourra -eta Tourra dioenak Vuelta eta Giroa diorabazterik metalur hutsez". Nola liteke bada, hiru itzuli handietan goi mailan ibiltzea, besterik gabe?

Txirindularitzaren oinarrian dautzan egiei aurrez aurre begiratu gura ez diegunean, fikzioa nagusitzen da berau deskribatzeko orduan, "errepideetako kementsuak", "asfaltoko erraldoiak" eta antzerako kirtenkeriak esanez. Ziklistak gu bezalakoak dira, hezur-haragizkoak, eta hori aditzen ez badugu, nekez ulertuko dugu hain gustokoa dugun kirol hau.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Funtzioa**, show satirikoa, ostiralean, 21,00etan. Aste honetan estudioan Kike Amunarriz eta José Ramón Galarraga humoristak izango ditugu. Sketchari dago-kionez, Otegi eta Ansorena "Salvation Army"ko kideak bihurtuko dira. Javier Krahe-ren eta "Kenia Brothers" kontorsionista taldearen aktuazioak ere ikusgai izango ditugu.

■ **I. Abesbatzen lehiaketa**, igandean, 14,45etan. Honako talde hauek hartuko dute esku: Zumarraga-Urretxuko Goi Argi, Xabier Barriolaren zuzendaritzapean; Bilboko Jatorki (zuzendaria: Andoni Arregi); Gasteizko Cluster-Cámara (zuzendaria: J. José Mena) eta Irungo Enara (zuzendaria: Maite Tife).

■ **Casablanca**, (1943) larunbatean, 22,10etan. Zuzendaria: Michael Curtiz; Antzezleak: Humphrey Bogart, Ingrid Bergman, Paul Henreid; Richard Blaine, gerraren egoerak eta amodio arazoen dezepzionaturiko gizona Casablancako kafe baten jabea da. Ustelkeri eta azpikeriaz beteriko leku honetan Isla, lehengo neskalaguna dena, eta bere senarra aurkitzen ditu.

bideoak



Axolagabeak: Alberto Moravia idazle italiarraren izen bereko elaberrian oinarritzen da filme hau. Mauro Bolognini izen handiak izan zituen bere agindupean: Liv Ullman, Peter Fonda eta Laura Antonelli. Musika Ennio Morriconerena.

Italiar goi mailako gizon bat izango da istorio honen gunea, inguruko pertsonaiarik hurbilenak bara grinaren esklabu bihurtuko dituen, horietako bat oldartzen zaion arte.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

E		GI	I	
TU		GU		AR
	KO	LU		KO
	OR	BEN	NA,	
DU	NA.		DU	A



Esaera zaharra, zaldiz

Hiztegia lantzen

Zer da oldartu? Aukeratu zerrenda honetan definizio zuzena

- OLDARTU** =
- a) Zimaurre metatuari buelta eman, egurastu dadin.
 - b) Indarra galdu, nekatu, lur jota geratu.
 - d) Eraso.
 - e) Artoa zuritu ondoren, bihi edo aleak saski, ohial eta abarretan pilatu eta aletegian gordetzeari esaten zaio.

Soluzioak: 19. orrialdean.


P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Urrutira joan gabe, nahi duzuna agertuko da. Orain arte garbi ez zegoena argituko da, aintzinako kezkek baztertuz.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Bihotz onekoa zara, horrela ikusten ez bazaituzte ere. Esaera batek dioen bezala, ona izatea ez da nahikoa, antzematea beharrezkoa da.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Nahi duzunean munduko pertsonarik atsegineza zara, baina zure irrifar faltsu horrek salatu egiten zaitu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Aste honetan bidaiaren bat egin behar duzu. Hasieran ez duzu gogo onez hartuko baina gero gustora ibiliko zara!



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Horrela gustora egonda, saia zaitetz momentu honetan daukazuna mantentzen. Ez dago aldatzeko arrazoirik baina ez zaitetz geldiegi egon.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Nahiz eta larriegi erabili duzun umore hori ez duzun galdu behar. Umore onaz dena hobeto aterako zaizu. Saia zaitetz.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Maitasun arloan independentzia behar duzu eta aspaldi honetan lotuta sentitzen zara. Kontuz ibili, baten bat mindu nahi ez baduzu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Aldakorra eta dogmatikoa izatea ez da batere erreza baina zuk lortzen duzu. Konponbide sinpleagoa duenarekin, berriz, ez zara hain trebea.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Egingo duzun bidaiaren sorpresa batekin topatuko zara. Ez utzi ihes egiten, bizitzan behin gertatzen dira horrelakoak eta.




CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Sartuta zauden nahasketatik irteera ez zaizu erreza gertatuko, bertan estimatzen duzun pertsona bat baino gehiago daude, baita beste uste ezik ere.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ez zara uste duzun bezain legala, zurea defendatzeko besteena apurtzea ez zaizu axola. Gero eta zurikoia zara.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Burunahasketa ugari dituzu azken bolada honetan. Ideiak argitu behar duzenituzke. Onena duzu oporrak hartu eta urrutira joan.

ESKUALDEKO UDALETAN DAGOEN LANGABEZI EGOERA

1989 ko Martxoan 31n, Arrasate-
lo Lan-Bulegoan jasotako datuen
arabera hauxe da langabezi egoera.

4.149 pertsona

Hautetik: — 1.729 gizon
— 2.420 andra

* 2.103—25 urtetik beherakoak

* 2.046—25 urtetik gorakoak

Udalerrien arabera banaketa
horrela geratzen da:

Arrasate — 1.829

Bergara — 1.025

Oñati — 574

Aretxabaleta — 310

Eskoriatza — 201

Antzuola — 148

Elgeta — 58

Gatzaga — 4

Guztira: 4.149

ZENBAT GEHITU DEN EUSKARAREN ERABILPENA UDALETXEAN

1988an Arrasateko Udaletik irten
zuten idazki, dokumentu eta jakine-
razpenetatik %41a euskaraz egin
zen. Elebitan %11 eta gaztelaniaz
%48a.

1987an, ostera, %9'6, %14'5 eta
%75a, hurrenez hurren.

Udalan euskararen erabilpena
indartu eta bultzatzeko egiten ari
den ahaleginaren seinalea da.

Esanguratsua da datu hau:
1988an Gobernu-Batzordean landu
ziren diktamenek eta honi dagoz-
kion aktek %21'16ko portzentaia
dute.

Kontutan hartu behar da iaz por-
tzentaia %5'78koa izan zela.

Plenoetan antzerako dinamika
jarraitzen da.

APIRILEKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO SALDUENAK

Bergarako Bilintx liburudendak
bidali dizkigun datuen arabera,
hauek izan dira Apirilean euskal
liburu eta diskorik salduenak:

Liburuak


1. Instanbulen alkartuko gara (Richard Chisholm)
2. Letagin zuria (Jack London)
3. Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (B. Atxaga)
4. Haur besoetakoa (Jon Mirande)
5. 110. Street-eko Geltokia (Iñaki Zabaleta)
6. Irene (Pako Aristi)

Diskoak

1. Muga beroetan (Imanol)
2. Berriz arte (Txomin Artola)
3. Beti gogor, beti mozkor (O.K. Corral)
4. Salda badago (Hertzainak)
5. Azken guda dantza (Kortatu)
6. Eremuko dunen atzetik dabil (Itoitz)

TALLERES OLA, S.L

*OPEL*en kontzesionario ofiziala



Instalazioak:

Olabarrena Auzoa, z/g

Tfnoa: 76 33 44/45/46

BERGARA



Erakustokia:

Loramendi, 2

Tfnoa: 79 85 06

ARRASATE

OPEL 